



Antibiotikoekiko erresistentzia

Gaurko infekzio
arina, bihar
hilgarria
izan daiteke

Estitxu Garai

publizitate ikerlaria

«Zenbait
testuingurutan
euskarak
modernotasuna
iradokitzen du,
gazte hizkuntza
delako»

Gure Esku Dago

22 hedabide
elkarlanean,
60.000tik gora
lagun giza katean

Net Hurbil


Kooperatibisten
beste garaipen
bat, Marseillan

Iban Zaldúa

«Fikzioaren bidetik
errazago iristen
naiz egiaren bat
kontatzera, nire
iritzia egituratuta
baino»

Mikel Hiribarren, ELB

«Industrialak ez den laborantza ereduak
soilik itzuliko digu estimua»




Klima-aldaketaren aurrean,

NEURRIAK HARTU DITUGU

CO₂-AREN
IGORPENAK
MURRIZTU DITUGU



KLIMA-
ALDAKETARA
EGOKITU GARA



Klima-aldaketaren eraginak arintzea da EAEko estrategiaren helburua, eta berotegi-efektuko gasak murrizteko neurrietan inbertitu dugu.

Gainera, urratsak eman ditugu, naturaren eta gizakiaren sistemak ingurumenaren aldaketetara egokitzeko, hau da, kalte potentzialak gutxitzeko, aukerak aprobetxatzeko, etab.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

PERTSONA HELBURU



Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAKO edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produzioa: ANTZA, S.A.L.

Salmenta eta harpidetza: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknika: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa: GaztelukoPlaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetza: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2014ko ekainaren 8a, 2.418. zenbakia

ASTEKO GAIA

ANTIBIOTIKOEKIKO ERRESISTENTZIA Kontrolatutzat genuena berriz mehatxu. UNAI BREA / 4

PERTSONAIA

MIKEL HIRIBARREN: «Iparraldeak estimu handiegia die kanpoko abersatsei». SUSTRAI COLINA / 9

GAIK

ASSA IKASTOLA Elkarkidetzak, denon artean ikasiz. RUBEN SÁNCHEZ BAKAIKOA / 14

AUZOLAN ESPERIENTZIAK Mendizale eta herritarrek ondarea berreskuratzen. MARTIN VICIOSO / 18

IRITZIAREN LEIHOA

EUROPAR LEGEBILTZAR BARREIATUA

BALEREN BAKAIKOA AZURMENDI / 20

SANTI AUZMENDI HIL DELA PELLO ZUBIRIA KAMINO / 21

JARDINER, C'EST RÉSISTER BEA SALLABERRY / 22

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 19

BERTSO BERRIAK Ijitoa naiz. MAIALEN AKIZU / 21

TXANDAN Hor daude. ITXARO BORDA / 22

ZIRTA Egun bat dirugabe bizitzeko instrukzioak. IRATXE ESNAOLA / 23

ERDIKO KAIERA

IBAN ZALDUA: «Ipuin bakoitzak hurrengo irakurtzeko grina piztu behar du, neurri batean». MIEL A. ELUSTONDO / 24

LITERATURA Kataluniarren ipuin hori. GORKA BEREZIARTUA MITXELENA / 28

NATXO MONTERO Lugorri utzitakoaren sentipena. MYRIAM GARZIA / 30

LITERATURA XABIER ETXANIZ ERLE / 32

MUSIKA MONTSERRAT AUZMENDI / 33

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34

ALEA Antzerki kritikarien azalean. LANDER ARRETXE / 35

ZIENTZIA JOXERRA AIZPURUA SARASOLA / 36

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 37

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

TERMOMETROA

GURE ESKU DAGO Helburua beteta. URKO APAOLAZA AVILA / 40

ESTITXU GARAI ARTETXE: «Euskara azken orduko eginkizuna bada, ez da harritzekoa iragarkia kaskarra izatea». LANDER ARRETXE / 42

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 46

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 46

NET HURBIL Fralib: langileek kooperatiba bihurtu nagusiak itxitakoa. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Kontrolatutzat genuena berriz mehatxu

Bakterioak azkar egokitzen dira ingurunera, oso azkar. Duela 70 urte inguru hasi ginen antibiotikoak erabiltzen, eta denbora horretan kontrolpean ezarri ditugu lehen hilgarriak edo oso larriak ziren infekzio asko. Orain, ordea, antibiotikoen aurreko egoera horretara itzultzeko arriskua dugu, antibiotikoak gehiegi eta gaizki erabiltzeagatik, hain zuzen. OMEk apirilean argitaratutako txostenaren ondorioak benetan ikaratzekoak dira.

| UNAI BREA |

BAKTERIO, birus eta bestelako patogenoek sendagaiekiko garatzen duten erresistentzia medikuntzaren kezka nagusietakoa izan da gutxienez azken hamabost urteetan, fenomeno askoz lehenagotik ezagutzen den arren. XXI. mendean osasun publikoak jasango duen mehatxurik handiena dela ere esan da. Gure buruhausteen podiumean koska bat gorago edo beherago egon, ukaezina da mikrobio eta batik bat bakterio erresistenteak larritasun handiko arazoa direla; hala erakutsi dute azken hamarkadetan bildutako hamaika


datuk, egindako hamaika ikerketak, jasandako hamaika sufrikariok.

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) apiril amaieran aurkeztu zuen askok aspalditik eskatzen ziotena: erresistentzien arazoaren mundu mailako erradiografia. Fenomenoaren ikuspegi osoa lortzeko estreinako saiakera horrek *Antimicrobial resistance. Global report on surveillance* dauka izenburua (Mikrobioen aurkako botikekiko erresistentzia. Zaintzari buruzko txosten globala).

Bi ondorio nagusi atera daitezke ikerketa-

MRSA, bakterio-aldaera hiltzaile zabalduenetakoa

DON STALONS / PHIL.CDC.GOV



STAPHYLOCOCCUS AUREUS da OMEren txostenak aztertzen duen bakterioetako bat. Gure azal eta sudurraren flora arruntean aurkitu daiteke, gaitzik sortzen ez duten aldaeretan, baina infekzio gehien eragiten duen mikrobioetakoa da. Hura dugu, esaterako, ebakuntzen osteko infekzioen erantzule nagusia.

Penizilina erabiltzen hasi zenean, *S. aureus*-aren aurkako tratamendu egokia zela ikusi zen, baina lehen erresistentziak luze gabe agertu ziren, 40ko hamarkadan bertan. Horri aurre egiteko metizilina izeneko farmakoa garatu zen, baina 60ko hamarkada hasi orduko harekiko lehen andui erresistenteak atzeman zituzten. Andui horiei MRSA esaten zaie (metizilinarekiko erresistentzia duen *S. aureus*). OMEk behatu ahal izan duenez, *S. aureus* guztien %20, gutxienez, MRSA aldaerakoak dira mundu osoan, eta zenbait eskualdetan portzentaje hori %80raino iritsi daiteke. Ospitaleak dira haren joko-zelai kutuna, baina gero eta zabaldugodago erietxeetatik kanpo ere. MRSAk urtero 19.000 lagun hiltzen ditu Europan, OMEren arabera.



tik: batetik, arazoaren neurria zehatz ezagutzetik sano urrun gaude oraindik, besteak beste munduko eskualde askotan ez dagoelako behar bezalako datu bilketarik egin. Baina bestetik, dakiguna nahikoa da beldurtuta egoteke. Kontrolatutzat genituen infekzioak berriz hilgarri bihurtzeko arriskua benetakoa da, horra OMEk munduari eman nahi dion abisua. Bai gordin eman ere. Harrizkoa behar du, hurrengo orrialdean ageri diren Keiji Fukuda, OMEko Osasun Segurtasun zuzendariaren berbak irakurrita hotzikara txiki bat bederen sentitzen ez duenak.

Azeleratu dugun gertakari naturala

Bestela ere jakina zena gogorarazi du *Antimicrobial resistance* txostenak: mikroorganismoek

OMEren esanetan, bakterioen erresistentzia azkartzeak kolokan jartzen du medikuntza modernoaren aurrerapena. Esaterako, penizilinarekin erraz tratatu ohi zen pneumonia hilgarri bihurtu daiteke kasu askotan.

sendagaiekiko erresistentzia garatzea gertakari naturala da. 1945ean, “antibiotikoen aroa” esan zaiona hasi berritan, haren sortzaile nagusitzat daitekeen Alexander Flemingek iragarri zuen bakterioak erresistente bihurtuko zirela; penizilina kasualitatez aurkitzeagatik Nobel Saria eman ziotenean esan zuen hori Flemingek, esker oneko diskurtsoan. Erresistentzia nola sortuko zen ere aurreikusi zuen: gaixo batek antibiotiko dosi txikiegia hartuz gero, ez zituen mikrobioak erabat akabatuko, eta bizirauten zutenak erresistente bihurtuko ziren. Baita haiengandik eratorriko belaunaldiak ere, eta belaunaldi berriak minutu gutxian sortzen diren izakiez ari gara. Ez da harritzekoa antibiotikoak erabiltzen hasi eta urte gutxira atzeman izana lehen erresistentzia kasuak.



Moyua
hileta zerbitzuak

Zure momentu zailetarako

Otadui Gotzaina kalea, 27 · 20560 Oñati (Gipuzkoa)

☎ 943 783 447 / 617 442 466

mmoyua@telefonica.net · www.tanatorio-gipuzcoa.com

CuadraBus

www.cuadrabus.com

☎ 945 890 804 / 670 477 727 · Faxes: 945 892 215

info@cuadrabus.com

Prebentzioaren garrantzia: esku garbiak, bakterioentzako hesia

ANTIBIOTIKO BERRIRIK EZEAN –horien premia azpimarratzen badu ere–, prebentzioaren garrantzia aipatzen du *Antimicrobial resistance* txostenak. Besteak beste, higie-ne neurriekin zorrotzago jokatzearen beharra aldarrikatzen du mundutarron osasuna jagoteaz arduratzen den erakundeak. 200 orrialde baino gehiagoko txostenean lau lerro besterik ez zaizkio eskaintzen gaiari, baina ez da horregatik garrantzi gutxiagokoa. Izan ere, maiatzaren 5ean, dokumentua argitaratu eta oso gutxira, Eskuetako Higienearen

Munduko Eguna ospatu zuen OMEk, 2009tik urtero egiten duen lege. Kanpainak oihartzun apala izan ohi du jendartean, osasungintzako profesionalei zuzentzen baitzaie beren-beregi. Aurtengoaren ardatza, zer esanik ez, mikrobio-erresistentziari aurre egin beharra zen. Dena ez baita botikaz konpontzen.



Nolanahi, gertakari naturala den hori azele-ratzen ari dela nabarmendu nahi du OMEk, eta horren arrazoi bakarra ez da gaixoe-k agin-dutako dosia amaitu gabe uztea tratamendua. Okerragoa da abusua. Antibiotikoak –batez ere sendagai multzo horretaz dihardu OME-ren txostenak– behar ez denean errezetatzen dituzte medikuek, “seguru egoteko”; edo behar ez den antibiotikoa hartzeko agintzen diote gaixoari; edo gaixoak bere kasa erosten du farmazian, errezetarik gabe. Bestalde, abusuarekin edo gabe, antibiotiko bat hartzeak beti dakar ordaina. Xavier Horcajada gaitz infekzioetan adituaren berbetan, “gaixoa-ren historia biologikoan grabatuta geratzen da”. Ordaina ez dadila izan behar baino handi-goa, horra gakoa.

Urtero 25.000 hildako European

Arazoaren neurria –bai giza osasunari bai kostu ekonomikoari dagokienez– zein den ezin zehatz jakin gaur egungo datuekin, dio OMEk. Balio bezate, momentuz, azterketa partzialek. Esaterako, kalkulatu da mikrobio-en erresistentziak urtero 21.000 eta 34.000 milioi dolar bitarteko gastua eragiten duela AEBetako osasun-sisteman. Eta zortzi milioi eguneko egonaldia ospitaleetan. Ikara-garriagoa da, dudarik gabe, kausa horrengatik European urtero 25.000 pertsona hiltzen direla irakurtzea.

Dena den, txostenean emandako datuak tentuz hartzeko gomendioa egiten du erakundeak: “Baliteke laborategi batean erresistentetzat jotzen den bakterioa sendagaiarekiko sentiberatzat hartzea beste batean. Bestalde, datu asko erietxeetan jasoak dira, eta horko gaixoak ez dira, agian, egoera oro-

Tuberkulosiari begira

OMEREN TXOSTENAK munduan oso zabalduta dauden zazpi bakteriori eskaini dio arreta gehien (*Escherichia coli*, *Klebsiella pneumoniae*, *Staphylococcus aureus*, *Streptococcus pneumoniae*, *Salmonella* ez-tifoidea, *Shigella* espezieak eta *Neisseria gonorrhoeae*), baina bestelako mikrobio batzuez ere badihardu. Hain zuzen, tuberkulosia eragiten duen *Mycobacterium tuberculosis* bakterioaz, malariaren sortzaile diren *Plasmodium* generoko bizkarroiez, GIB birusaz eta gripearenaz, eta kandidiasiaren erantzule den *Candida* legamiaz. Denetan atzeman dira erresistentziak.

Bereziki aipatzekoak dira tuberkulosia, malaria eta GIBa, haien erresistentziez gehiago baitakigu. Badago, beraz, haiengandik zer ikasi. Tuberkulosi erresistentearen kontrako borrokan buru-belarri dabilen Mugarik Gabeko Medikuek (MSF) elkarteak pozez hartu du txostena. “Lehenago egin balitz hobe”, diosku Teresa Guilarte Bilboko MSFko kideak, “ea balio duen tuberkulosi erresistenteaz gehiago iker dadin, diagnostiko berantiarra eta tratamendu luzeegiak sufrimendu handia eragiten ari baitira”. Aldaera erresistenteenak gaixoen %70 hiltzen ditu gaitzaren aurkako programa onak dituzten herrialdeetan. Beste leku batzuetan, hilkortasuna %90 ingurura iritsi daiteke.



Argazkian, Keiji Fukuda, OMEko Osasun Segurtasun zuzendaria. *Antimicrobial resistance* txostenaren aitzin-solasak haren izenpea dauka. Eta ez da batere lasaigarria: “Mundu osoko gobernuak arreta eskaintzen hasiak dira medikuntza modernoaren lorpenak mehatxatzeko bezain larria den arazoari. Infekzio arruntek eta zauri arinek hil egin dezaketen antibiotiko-osteko aroa ez da fantasia apokaliptikoa, XXI. mendean benetan gerta litekeen zerbait baizik”.

korrraren erakusle onenak; erresistentziaren arazoa benetan dena baino handiagoa dela pentsarazi dezakete”.

Oharrak ohar, egoera zeharo kezkarria da OMEren aburuz. “Medikuntza modernoaren aurrerapena, bakterioen aurkako farmakoak eskueran iza-tean oinarritzen dena, arriskuan dago”, dio Genevan egoitza duen erakundeak. Eta honako egoerak, balizkoak edo ez hain balizkoak, aipatzen ditu, esandakoaren adibide: pneumoniak, penizilinarekin erraz tratatzen zen gaitzak, sentiberatasuna galdu lezake eskura dauzkagun sendagaieki-ko, eta horrek arriskuan jarriko luke gaixo askoren bizitza; aho bidezko tratamenduekin aise sendatzen zen zistitisa askoz garestiagoak diren injekzioen bitartez tratatzen hasi beharko da agian, edo besterik gabe ezin tra-

tatzeko bihurtuko da; jaioberriengan eta zaintza berezietako eremuetan arruntak diren infekzioak gero eta maizago ari dira bihurtzen sendagaitz edo sendaezin. Eta abar.

Mikrobioek erresistentzia garatzea gertakari naturala da, baina azeleratzen ari gara, sendagaiak behar ez denean eta era desegokian erabiliz

Ezta antibiotikorik bortitzenekin ere

Patogeno erresistenteez modu orokorrean badihardu ere, *Antimicrobial resistance*-k zazpi bakterioengand jartzen du fokua. Zenbait herrialdetan, bakterio horietako batzuen aurka ohituraz erabili izan diren antibiotikoek gaixoen erdia baino gehiagorengan dagoeneko eraginik ez dutela behatu da. Halaber, aztertutako herrialde guztietan (114, orotara) erresistentziak daudela ikusi dute txostenaren egileek. OMErentzat bereziki kezkatzekoa da *Klebsiella pneumoniae* bakterioak karbapeno izeneko sendagaien aurrean ager-

Inguru
ABENTURA

- Abentura kirolak
- Ezkonaurreko agurrak
- Familiarteko jarduerak
- Abentura bidalak
- Material tekniko alokairuak
- Eta askoz gehiago...

San Juan 18, Albeniz-Asparrena (Araba) - Tel. 635 748 948 - 635 748 947
www.inguruabentura.com - info@inguruabentura.com

Gehiegizko erabilera abeltzaintzan

OMEREN AZTERLANAK pasarte zabala eskaintzen dio abeltzaintzan eta arrain-hazkuntzan erabilitako antibiotikoei; bidenabar esan dezagun gizakiok hartzen ditugun far-


mako berak direla orobat. OMEk gogorarazten duenez, albaitaritzarako ez ezik hazkuntza hutserako erabiltzen dira antibiotikoak, munduko herrialdeen erdian gutxi

gorabehera, AEB barne. Hau da, aziendei botikak ematen zaizkie sistematikoki, gaixorik egon gabe ere, horrek gehiago eta azkarrago gizentzea eragiten baitu.

Europar Batasunean 2006tik dago debekatuta hala egitea. Haatik, Europako Batzordeak uste du albaitaritzari lotutako erabilera ere gehiegizkoa dela, eta abusuari aurre egiteko neurriak iragarri zituen, iazko azaroan egindako agerraldi batean.

AEBetan urrats bat atzerago doaz, baina han ere hasi dira mugimenduak. Erabateko debekua ezarriko ez badute ere, haragi-hazkunderako erabilerari zenbait muga ezarri zizkion hango Sendagai eta Elikagaien Agentziak, FDAk, joan den urtarrilean. Pauso apal samarra oraingoz, baina bada zerbait, hango elikagaien industriak urte askoan horrelako neurriak nola oztopatu dituen ikusita.

BRIAN SCHACK



tutako erresistentzia, zenbait lekutan %50etik gorakoa. Karbapenoak orain arte aurkitu diren antibiotiko indartsuenak dira. Bestela esanda, zenbait infekzioen kontrako azken defentsa lerroa.

Badaezpada aurreko paragrafoak hori eman dizun aditzera, ez ezazu pentsa karbapenoak atzo goizeko aurkikuntza direnik. Ez karbapenoak, ez beste edozein antibiotiko. 1929an Flemingek penizilinarekin topo egin zuenetik 1970eko hamarkadara arte, bakterioen aurkako farmako ugari garatu ziren. Sendagai ejertzito hura gai zen, artean, mikrobio arrunt gehienak hiltzeko. Baina OMEk nabarmentzen duenez, azken antibiotiko multzo erabat berriak, euren artean karbapenoak, 1980ko hamarkadakoak dira. Ordezkoak ez dira berehalakoan iritsiko. OMERen esanetan, bakterioen aurkako sendagai berrien garapena hutsaren hurrengoa da uneon. Eta antibiotikoen ordezko bestelako tratamenduak eskuratzeko ikerkuntza lehen urratsetan besterik ez da ematen ari oraingoz.

Azkar sendatzen dutenez, ez dira errentagarriak

Antibiotiko belaunaldi berri batek arazoa konponduko edo areagotuko lukeen eztabaida-

tzeari uko egingo diogu erreportaje honetan, baina ezin aipatu gabe utzi, bederen, 30 urtean antibiotiko berririk sortu ez izanaren arrazoiak. Arazoa ez baita zientziak bere bideak agortu dituela, konpainia farmazeutikoei antibiotiko berriak garatzeko garesti suertatzen zaie la baizik. OMERen txostenak ezer gutxi esaten duenez horri buruz, hemerrotekara jo dugu. Sareko bilatzaileetan pare bat minutu ematea

aski da antibiotikoen errentagarritasunaz hitz egiten duten ikertzaile ugariarekin topo egiteko.

Ospe handiko bat ekartze aldera, Venki Ramakrishnan 2009ko Kimika Nobel saridunak duela hiru aste inguru Madrilen esandakoa gogoratuko dugu: “Etorkizun handiko molekulak egon badaude, baina sendagaiak buruz-

tzeko prozesua luzea, zaila eta garestia da, beraz ez da errentagarritasun handikoa farmazeutikentzat. Gainera, molekula berri horiek pertsona gutxik erabiliko lituzkete, eta denbora laburrez, eta farmazeutikek nahiago dute gaitz kronikoetarako sendagaiak garatu. Bestelako eredu farmazeutikoa behar dugu infekzioei aurre egiteko, antibiotikoeikiko erresistentzia erabat zabaltzen denean hondamendi handia gertatuko baita”. ■



PERTSONAIA

MIKEL HIRIBARREN

«Iparraldeak estimu handiegia die kanpoko aberatsei»

“...Eta indarrak ongi errotuz, gure sustraiak lurrari lotuz...”.

| SUSTRAI COLINA |

Argazkiak: Dani Blanco



Apezgai ikasketak egin zenituen...

Hemengo giroak horretara bultzatzen zuen. 10-11 urterekin sartu ginen azken belaunaldia izango da gurea. Baxoaren ondotik atera nintzen. Nekazaritza edo beste edozer egitea ez zitzaidan inporta, baina ezjakintasunak ordu-

ko nekazal mundua menpean atxikitzen zuela sinesten nuen ez, argitasuna ukan eta ikasketak egitea garrantzitsua zitzaidan. Dena errateko, kontraesan bat nuen, uste bainuen jakitateak ematen zuela boterea, eta garai hartan ez genuen botererik nahi! Urte pare batez

soziologia ikasi nuen eta handik soldaduskara deitu ninduten. Soldaduska errefusatu eta kontzientzia-eragozle figura baliatuz, Zube-roako elkarte batean aritu nintzen nekazari ttikiei laguntzen. 1980ko martxoaren 26an itzuli nintzen gurasoen etxaldera lanera. Adiskide artzain batek, gainean zeraman bonba lehertuta, bizia galdu berri zuen Baionako ospitalean. Militantzia urteak ziren, bai Euskal Herrian, bai nekazal ofizioan. Herri askotan gazteria mobilizatzen hasia zen lana berreskuratu eta baserri mundua gure eskuekin erabiltzeko. Ordukoak dira ELBren inguruko sortze gogoetak, kooperatiben mugimendua, IK-ren hastapenak, kultur giro baten lehertzea... 1975etik 1980rako urteak biziki emankorrak izan dira Iparraldean. Hala, militantzia molde bat zen nekazaritzan abiatzea.

Laborantza molde jakin batean abiatzea izanzen militantzia, ezta?

Ez zen baitezpada hauturik. 1980an hementxo baserriak ez ziren merkatuko dinamikan sartuak, etxez etxeko ekoizpena zen nagusi. Ondoko hamar urteetan hasi gara. Frantziako beste eskualdeekin konparatuz, ohargarria da Iparraldean jende anitz egon dela biziki etxalde egitura hertsia eta ttipietan. Politikari guziek erraten dute laborantzari dagokionez ere oso bereziak garela. Gainontzeko eskualdeetan laborantzatik bizi ahal izateko 70 edo 100 hektarea behar dituzte, hemen 15 edo 20rekin bizitzea posible dela frogatu dugu. Denek miresten dute hemengo dinamika, baina ez dute asmorik beste eskualdeetan bultzatzeko. Hastapenetik Frantziako logikan sartu izan bagina batek daki zer izanzen ginatekeen orain. Merkatuaren dinamika gibelapenez sartu izanak salbatu gaitu, agian. Gibelatik jiteak sekulako abantaila ematen du batzuetan.

Bigarren Mundu Gerraren ondotik, ekoizteagatik ekoiztearen mentalitatea inposatu eta munduari jaten emateko misioa hartu zuen beregain Frantziako laborantzak. Zer gelditzen da egun?

Orduan milioika laborari zeuden Frantzian, 500.000 gelditzen dira egun. Beste modu batean jokatu balitz, enpleguak lehenetsi balira, arras beste nekazaritza eredu bat sortuko zen. Baina garai hura berezia zen, industriak besoak behar zituen lanerako, eta laborariek fidagarriak izaki, erraxki erakarri zituen. Hori aspaldi bukatu zen, alta, industriak ez du jada laborariaren besorik behar, eta nekazaririk ez da gelditzen. Nola uzkali egoera? Nola konbentzitu politikariak beste eredu batera joateko tenorea dela? Confédération




Paysanne eta ELBk nekazaritza herrikoi eta iraunkorra proposatzen dugu. Pikoan den modeloa da, gizon-emazteak laborantzaz atxiki edo berriz lurrari lotzen dituen, eta Via Campesinatik datorren elikadura burujabetzarekin bat egiten duena. Ahalak ez dira eskas. Frantzia bezalako herrialde batean 10 bilioi euro banatzen dira urtero Europatik. Banaketa sistema justuagoa balitz, ez balitz lur eta abere kopuruaren araberakoa, arras bestelako bazterrak behar genituzke hemen dik hamar urte baino lehenago. Baina politikariek hazkunde ekonomikoa baizik ez dute miresten, Frantziako kanpo-ekonomiaren orekaren izenean baitezpadakoa omen da esportazioa atxikitzea, eta denek uste dute laborari mundu hau bakandu behar dela herrialde moderno bat izateko. Hori guti ez eta Frantziako sindikatu nagusia, FNSEA, horren hazle da, eta multinazionalen sareak ilunpetan gauzka.

Laborantza politikak politikari eta multinazionalak pentsatzen dituzteno, nola egin argi ilunpetan?

Zaila da, laborantza politikak ez baitituzte politikari eta firma handiek soilik egiten, heien esku diren laborarien laguntza dute. Gurean, ez dakit gure kontra ditugun ordezkariak firmen esku ote dauden, baina Frantzian, ofizioaren lidergoan diren nekazariak, gobernuarekin eskuz esku doazenak, gisa batez edo bestez firmen menear dira. Horrek noraez eta zentzugabekeria ulertezinak sortzen ditu. Iparraldean, badira gure lurraldearen guztiz aurkakoa den FNSEArekin politika promozionatzen duten laborari ordezkariak, pribatuan aterabidea laborantza herrikoi eta iraunkorra dela onartzen dutenak. Zentzu horretan, Frantziak berriki arto GEOak (Genetikoki Eraldatutako Organismoak) debekatu izana sekulako garaipena da. Ez da guti jendarte eta laborari mundu batek multinazionalen mamua gibelaraztea. Alabaina, multinazionalen aurkako guda ez da sekula bukatzen. Europa eta Amerikako Estatu Batuen arteko tratatu ekonomikoak dira horren

NORTASUN AGIRIA

Mikel Hiribarren. Itsasun sortua 1956an. Itsasuko Aroztegia etxaldean laborari, ELB-ko militante nekazari eta 2013tik Frantziako Confédération Paysanne-ko idazkari nagusia da. 1998an, auzoko beste hiru laborarirekin, Basaburuko Saskia izeneko kontsumo talde edo AMAP modukoa sortu zuen, lehenetarikoa Euskal Herrian. Azken hamarkadetakoa laborari borrokan ulertzeko ezinbesteko erreferentzia.





OFF THE RECORD

Etxean daukaguna

Azken hiru mende eta erdietan odol berekoak aterpetu dituen Aroztegia etxaldean hartu gaitu Mikel Hiri-barrenek. Mami gehiago ez eman izanaz dolu, idatziz ahoz baino hobeki moldatzen dela desenkusatu da, elkarriketa eta argazki saioaren artean, gazta saltzera abiatu delarik. Iparraldeko dinamikaren balioaz ohartzeko ez dagoela kanpora ateratzea bezalakorik, hemen ohartu ez arren Mixel Berhocoirigoin José Bovéren pareko mitoa dela... Alegia, deus ez esanda-koek oihartzun egiten didate oraindik. Noiz jabetuko gara etxean daukagunaz?

zenuten 1998an. Gauza simple, zentzuzko eta logikoenak dira alternatibak?

Belaunaldi berriko lau laborari ginen auzoan, elkarrekin zerbait egiteko asmoa genuenak. Ez genuen merkatuetan hainbeste denbora galtzeko gogorik baina bai jendearekin tratatu zuzena atxiki eta lantzekoa. Gure saskiak etxeetara eramateko formula ezarri genuen plantan, eta garai hartan modaz kontrakoa bazen ere, orain AMAPen loraldi betean gara. Dena den, nekeza izan da AMAPak martxan ezartzea. Jendeak indar berezia egin behar du, diru gehixeago ordaindu... Egun, guztiz normaltzat bizi dugu, baina jendearentzat sekulako aukera da hautuz beteriko denda batean gertatzea. Horrek akomodatzeko gaitu, molde batekoak bihurtzen. Laborariok ere besteak bezala egiten ditugu gure erosketak, baina multinazionalen esku badago salmenta sarea, multinazionalen esku laborantza... zer gelditzen zaigu? Horregatik da urrats militante bat AMAPetan erostea, hautu amaigabe horri uko egitea. Erraztasunera lerratu zarenean anitz kostatzen da hortik ateratzea. Laborari zein erosleek, denek dugu lan anitz bide errax horietatik ateratzen. Bitartean, janari pozoituarekin zigarretarekin bezala gertatzen da. Paketeetan “ERRETZEAK HILTZEN DU” ageri da, baina jendeak erretzen segitzen du.

Zigarreta paketeetan “erretzeak hiltzen du” nola, “Euskal Herria ez da salgai” ageri da laborantzarako balia zitezkeen lurretan eraikitako etxe berrien murruetan.

Espero dut gure esku eta indarrez aitzinatuko garelako lurraren aferan, baina politikariei eta lurraz arduratzen diren egiturei dagokie heien lana egitea. Kanpotik jende anitz heldu da hona, jende diruduna, ahal handikoa, eta inguruko lurrek hainbesteko arrakasta duteno prezioak jasanezinak izango dira guretzat.

adibide. Isilpeko tratatu horiek aitzina eramaten badituzte firmen garaipena izanen da, estatuen gaintetik herrialdeetan nahi dutena egiteko esku izanen dira. Oraintsu, François Hollandek bere etorkizunerako ikuspegia aurkeztu zigun Parisen, eta nahiz hitza ez aipatu, GEOen oihartzuna entzun genion. Garaipenak lortzea gauza bat da eta lorpenak atxikitzea beste bat.

Zergatik daude, oro har, laborantza eta laborari ofizioa desprestigiatuta?

Laborarien estimua landu behar dugu. Ez da hitzez bakarrik egingen. Azken urte luzeetan eraman den laborantza motaren erruz, jendarteak kategoria oportunistak eta kaltekor gisa ikusten gaitu, janari onaren berme eta ekoizle zintzotzat agertu beharrean. Alabaina, Euskal Herrian, eta bereziki Iparraldean, jendarteak sentsibilizatuago dago, badaki osagarriaren lagun diren kalitatezko ekoizpenak promozionatzen direla. Ez da aski, alta, jendartearen ikuspegia aldatzeko. Kostaldeko egoiliar askorentzat Itsasu da barne alderako azken muga, ondorioz, heientzat hemendik hara diren laborari eta gaineratekoak ezin dira modernoak izan. Laborantza industrialaren gurutzea daramagu gaineen. Laborantza mota hori kondentatzea da gure lanetarik bat, beste laborantza ere du batek soilik itzuliko baitigu estimua.

Beste eredu baten bila, Basaburuko Saskia AMAP edo kontsumo talde modukoa abiarazi

Laborarien estimu faltaz mintzo ginen ares-tian, bada Iparraldeak estimu handiegia die kanpoko aberatsei, eta horrek izorratuko gaitu. Gazte denboran hori genuen amorrua, eta biziki ongi konprenitzen dut egungo gazteena ere hori izatea. Urtetik urtera uhina handitzen ari da eta gero eta gaitzagoa izanen da gelditzen.

ELB eta Euskal Herriko Ganbararen inguruan sortu duzuen uhina ere gero eta handiagoa da. Ohartzen gara zenbateko lorpena den, zer suposatzen duen?

Hemen ez hainbeste, baina kanpora ateratzea aski da egiten ari garenaren dimentsioaz jabetzeko. Gure eguneroko dinamika lanpetuan sarturik, iruditzen zaigu hainbeste ardura eta iniziatibek itotzeraino tinkatzen gaituztela, baina kanpoan denek nahiko lukete guk duguna ukan. ELB eta bere inguruko sormarka, kooperatiba, elkarre eta laborari sekulako bizia eta militantzia maila dute. Hori zainetan daramagu, eta pixkanaka, nekazaritza, eta agian jendartea, aldatzen ari gara. Sekulako balioa du gure bizia gure esku hartzeak. Ez da kasualitatea Frantzia laborantza hondoa jotzeare egotea, eta hemen dinamika hau izatea. Kanpokoei beti azaltzen diet laborantzarena ez dela mugimendu isolatua, ikastolak, herri irratia, kultura... ere hor direla. Nire garaiko lagunak atzematen ditut laborantzatik hasi eta politikaraino. Agian, politika hutsean gara ahulenik gertatu. Orain dela gutxi arte ez gara sartu botere egituretan. Hor sartzen ez ziguten utzi, baina libro utzi ziguten guztia baliatu dugu guk. Baiona baino goragotik Euskal Herrira datorrenak berehala ikusten du lurralde hau berezia dela. Bereizitasun hori ikusita, gure kezka nagusienetakoa da belaunaldi berriei formakuntza politikoa transmititzea. Hastapenean aipatzen genuen 80ko aroan, bihotzez komunistak ginen, justizia eta berdintasun egarri ginen, jendarte zuzenago baten ametsa posible zela

sinesten genuen. Egun, ez da ikusten zerk eta nola bilduko dituen gazteak formakuntza politikoari buruz. Horretan ere gure geroa jokatzeko ari gara.

Laborantzaren geroa Nekazaritza Politika Bate-ratua edo PAC-aren negoziaketan jokatzeko den bezala, funtsean.

Egungo laborantza politikaren gida nagusiak diren Europako laguntzak aldatuko direla espero dugu. Gero eta agerikoagoa da orain arteko irizpideak nora garamatzaten, eta nahi izanez gero, politikariek hori aldatzeko ahala dute. Ez da onargarria dirulaguntzak laborari bakoitzaren hektarea kopuruaren arabera izatea. Guk, enpleguaren alde pario egin, eta elikadura burujabetzari atxikitako gure laborantza herriko eta iraunkorra promozionatzen segituko dugu. Herrian herriko janariaren erabakitzea baitezpadakoa da ondoko hamarkadei begira. Politikariek gaurdanik 2020ko PACa prestatzen hasi behar dugula erraten digutenean orain arteko banaketa sistema gaitzagarria dela aitortzen dute. Hor neurtuko dugu zenbatekoa den itzaletik ari diren botere ekonomiko eta multinazionalen indarra. 2020an banaketa sistemak gaur egungo moldeetan baldin badira seinale txarra. Susmatzen duguna egia bada, lehenago aipatutako Europa eta Amerikako Estatu Batuen arteko tratua liberal horien bitartez, alde guztietatik nagusitzen ahal zaizkigun bihotz eta arimarik gabeko etsaiak dauzkagu aitzinean. Kasu egin behar dugu, hori adierazteak gaixotzat agertzen ahal gaituelako, baina ez dugu aiantzi behar gero eta armiarma sare handiagoa eraikitzen ari diren bitartean gero eta euliagoak garela gure bizimodu arruntan. Horregatik, ahal bezala hortik libratzeko ahalegina egin behar dugu, eta hasierako solasera jinik, jakitateari esker lortu dezakegu hori. ■



TALLERES MITXELENA S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

ASSA IKASTOLA

Elkarkidetza, denon artean ikasiz

Aurtengo Araba Euskaraz antolatzeaz arduratu den Assa ikastolan (Lapuebla de Labarca), duela hiru urte hasi ziren elkarkidetza lantzen. Helburua da hurrek elkarrekin ikastea eta ikasgaiak, arauak, autonomia, ebaluazioa... elkarrekin lantzea.

| RUBEN SÁNCHEZ BAKAIKOA |



Irudian, Kultur Astearen baitan herriko plazan egindako dantza entsegua. Ikastolaren hurrengo erronka: elkarkidetza egunerokoan txertatzea, proiektu edo egun berezietara lotuta izan beharrik gabe.

ASSARA GERTURATU GAREN EGUNEAN, Kultur Astearen murgilduta daude ikastolan. Jolastordua une batez eten eta futbol zelaiko buelta osoa hartuz, dantzan aritu dira, 3 urteko txikienetatik 17 urteko gazteetara, baita irakasleak ere. Herriarekin bilatzen duten etengabeko harremanean, entsegu batzuk herriko plazan eginak dituzte, baita Kultur Asteko pregoia ere –Argitxok irakurria–. Helduenek gaztetxoenei irakatsi diete dantzan, eta antolatutako beste hainbat ekintza ere elkarkidetzan egin dituzte: pintxo lehiaketa eta

dastatzea, ikasleen dohain erakusketa, patatatortilla lehiaketa, edalontzi bidezko musika emanaldia, ikasleen kontzertuak... Modu berean lantzen dituzte urtean zehar dauden gainerako egun bereziak: Euskararen Eguna, Olentzero edo inauteriak kasu. Eta nola ez, aurtengo Araba Euskaraz: ostegunero biltzen dira ikasle, irakasle eta gurasoak.

Irakurketa da elkarkidetzan oinarritzen duten beste esperientzia interesgarri bat: Lehen Hezkuntzan, bikoteka lantzen dute, 2. eta 4. mailako ikasleak nahastuta. Horretara-

ko, aurretik prestakuntza jaso dute ikastetxe-ko hainbat irakaslek.

Formakuntza

Erkide kooperatiba elkartetik luzatu zuten eskaintza, eta guztira hamabi irakasle (klaus-troaren herena) aritu ziren HUHEZIn 40 orduko formakuntza jasotzen, 2010-2011 ikasturtean. Oraindik ere tutore bat daukate bidelagun. Assa ikastolan 370 bat ikasle daude, eta Idurre Arrieta irakasleak azaldu digunez, oso ezberdina da Lehen Hezkuntzako irakasleek pedagogiaren gainean duten formakuntza eta DBH edo Batxilergoko irakasleek dutena. Azken horiek ez daude hain trebatuta pedagogia arloan. Edonola ere, begi onez hartu zuten denek ikastaroa, eta elkarkidetzaz lantzen hasi zirenetik, urterik urte ildo hau hobetzen eta garatzen joan dira.

Hurrengo erronka argi du Arrietak: elkarkidetzaz egunerokoan txertatzea, proiektu edo egun berezietara lotuta joan beharrik gabe. Irakasleak gai izan daitezela, euren gaitasunen arabera, eguneroko ikasgaietan talde lanean aritzeko, banaka lan egin eta ondoren elkartu

Ebaluazioa ere ikasleen esku dago, egunero ebaluatzen dute, bakoitzaren lana taldean, eta berdin talde osoarena. Arrietak dio zintzoak eta zorrotzak direla, protagonismoa ematen zaienean

ordez. Horretarako, ohiko materialen lanketa aldatzen ari dira, apurka.

Lehen Hezkuntzan, esaterako, Txanela-ko materialak erabiltzen dituzte gehienbat. Irakasleek horko gaiak hartu eta taldean aurkeztzen dituzte. Batxilergoan berdin, gaitegiko tema bat hartu eta landu eta aurkeztu behar izaten dute. Aurrena taldeak osatzeko teknika ezberdinak erabiltzen dituzte, jardunaren arabera: izan daiteke aleatorioa, izan daiteke “adituen” inguruan (gai jakin baten gainean

kideek dituzten ezagutzen arabera), garatu beharreko azpi-gai eta azpi-lanen arabera... Aurre-lanketa oso garrantzitsua da, taldeak ahalik eta ondoen orekatzeko.

Adibidez, Batxilergoko gela batek osasun gida bat egin du triptiko batean, Lehen Hezkuntzakoei aurkezteko. Aurre-lanketa oso inportantea izan da eta azpi-gaiak jorratu dituzte: kirola, emozioak, osasuna... Hortik, aditu taldeak osatu eta triptikoan zer sartu eta zer ez eztabaidatu dute, talde dinamikak osatuz eta argudio eta errespetuan oinarrituta adostasuna bilatuz.

Elkarkidetzaren filosofian, ebaluazioa ere ikasleen esku dago, egunero ebaluatzen dute,



Torre de Oña, norberaren izaerari eustearen balioa. Jatorrizkoa

Torre de Oña Arabar Errioxako eremurik pribilegiatuenean sortutakoa da. Bere lursailik onenean, non bere mahastiek aparteko lurralde baten esentzia eskaintzen baitigute: bere-berea, berriztatzailea eta gaur egunekoa. Besterik ez den bezalakoa.

TORRE DE OÑA

www.torredeoña.com

Jarrai gaitzazu:





bakoitzaren lana taldean, eta berdin talde osoarena. Bukaerako nota ikasleek ipintzen dute, eta nahiz eta maiz aurreiritziek dioten ikasleek beren burua ebaluatuko balute beti “10” jarriko luketela, Arrietak azaldu digu zintzoak eta zorrotzak direla, protagonismoa ematen zaienean.

Zalantzak

Hezkuntzarekin motibatuta daudenen artean, kezketako bat *proiektismoa* izaten da, hots proiektu batetik bestera jauzika ibiltzearen sentsazioa. Gainera, “lehenago egindako guztiak ez al zuen ezertarako balio?” moduko galderek eszeptizismora bultza lezakete hezitzailea. Idurre Arrietak dio jarrera eta pentsamoldea aldatu behar direla: gai hau nola eramango dut gelara? nola enfokatu? Irakasleak onartu behar du bera ez dela jaun eta jabe ikasgelan, batzuetan laguntzaile baino ez duela izan behar.

Izan badira zalantza gehiago: klaustrora gaiak nola eraman, gurasoei nola azaldu, lan-keta bakoitzean sortzen direnak... Baina lehenago aipatu dugunez, tutore bat dute bidelagun, zalantzak elkarrekin argitzeko.

Ezker-eskuin:
elkarkidetza
kooperatiboan
dauden
irakasleak
HUEZiko
tutorearekin
formatzen, eta
ikasleekin
antolatu duten
txaranga taldea.



Horri guztiari esker, hiru urteotan garapena izan du egitasmoak, arlo ugarietan: ikasleen inplikazioa areagotzeko, ebaluazioa hobetzeko, edota behar bereziak dituzten ikasleak txertatzeko.

Ikastola, sendoago

Duela zenbait urte, errioxar gazte ugari ez zuen ikasteko premia handirik ikusten, mahastien inguruan bazen lana eta bizimodu aurrera ateratzeko aukera. Gaur egun, aldatu egin da egoera: noranahi zabaldu den krisia, gazte batzuei mahastia lehen beste ez gustatzea edo espezializazioa tarteko (mahasti bat kudeatzeko gaur egun hainbat arlotan trebatu beharra dago). Ezin alde batera utzi, ikastolak berak familiak eta gazteak kontzientziazteko egin duen lana. Gainera, Arrietaren hitzetan, ikasleak ikastolan pozik badaude, ikasiko dute, inplikatu badaude, ikasiko dute. Urte hauetan guztietan ikastolak Lapueblan bertan eta inguruko herrietan irabazi duen erreferentzialtasuna nabarmena da.

Elkarkidetzaren proiektuak eta Assa ikastolak oro har, ederki islatzen dute aurtengo Araba Euskaraz deia: ilusioa. Lapueblan 1994an lehen Araba Euskaraz egin zenean *Non eta mugan!* izan zen leloa, periferia aldarri, ondoren *Alex ale, uztaz uztaz* iritsi zen 1999an, aleka eta uztaka lanean ari ziren seinale. Oraingoan, *Mugan bizi, bizi* da mezua: aldarriaren eta uzten ostean, gaur egun Arabako Errioxan Assa ikastola eta euskara bizi-bizi daudelako.

Ekainaren 15ari begira, arreta berezia jarri dute eskualdea astintzen: Assa ikastolara 27 herrietako ikasleak joaten dira eta herri horietan etengabe egiten dituzte ekintzak: hala nola, txaranga, bira akustikoa, diaporamak, bertso-bazkaria, rock kontzertuak, olio dastatzea... Ikastolaren eta inguruaren artean elkarkidetza sustatzeko. ■





"Euskarari kolorea
emanez"

EUSKARA

kolore bizia!

euskaraba.com
arabako euskararen ataria



▶ Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
▶

www.alava.net

AUZOLAN ESPERIENTZIAK

Mendizale eta herritarrak ondarea berreskuratzen

Elgoibarko Sargoate dagoen iturria egokitu dute auzolanean. Morkaiko mendizale taldeak deituta, inguruak garbitu eta zuhaitzak landatu dituzte, garai batean bezala, Irukurutzetara igo nahi dutenek indarberritzeko leku ezin hobeia izan dezaten.

| MARTIN VICIOSO |

IRUKURUTZETA mendiaren magalean dago Sargoate. Elgoibartik igo nahi izanez gero, bertatik igaro beharra dago. Horregatik, 1959an harrizko iturri handi bat eraiki zuten bertan, Prudencio Etxaniz txirrindulariaren omenez, eta mendizaleek atsedenerako gune atsegina izan zezaten. 50 urte baino gehiago pasa direnean, iturriak aspaldiko xarma hura galdua zuen. Azken 30 urteotan pinupean egon eta gero, egoera tamalgarrian zen, hondatuta eta ahaztua zegoen.

Elgoibarko Morkaiko taldeak gunea berreskuratzea pentsatu zuen pasa den urtean. 1943tik mendizaletasunaz gozatzen duen elkarte honetako kideak izan ziren, inguruko baserritarrek in batera, elkarlanean iturria altxa zutenak. Espedizioak antolatzeaz gain, mendiarekin zerikusia duten ekintza ugari egiten dituzte.

Sargoateko iturria estaltzen zuten zuhaitzak bota zituztenean, berau konpontzea erabaki zuten. Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz lursailak erosi eta auzolanerako deia luzatu zuten herrian. Azaldu dutenez, haientzat garrantzitsua zen herritarren presentzia. Izan ere, herriak herriarako egiten duen lana da, eta komunitatea bera indartzen laguntzen du.

2013ko udazkenean hasi ziren egokitze lanekin. Lehenik eta behin, ura bideratuko zuen hodia ipini zuten, iturria berriro ere erabilgarria izan zedin. Ondoren, ingurua txukundu eta garbitu zuten, gero zuhaitzak landatzeko. Dena den, eremua zuhaitzez betetzea ez zen helburua. Iturri ondoko gunea argitsua izatea nahi dute, bertatik Elgoibarko parajeaz gozatu ahal izateko. Adin guztietako herritarrek hartu dute parte eginbeharretan. Esaterako, martxoan ospatzen den Zuhaitzaren Eguna baliatuz, umeei gurasoen laguntzaz euren alea landatzeko aukera izan zuten. Berreskuratze lanak bukatzeaz daude dagoeneko. Ekaina hasierarako



MORKAICO

Inguruan berreskuratu beharreko beste hainbat eremu zehaztu dituzte: Atxolingo iturria, Moruko Brontze Aroko hondarrak, Morkaiko mendiko tontorra...

deitu dute berriz auzolana, eta litekeena da egun horretan amaitzea.

Iturria egokitzeak ez du aseko elgoibartarren grina. Inguruan berreskuratu beharreko beste eremuak zehaztu dituzte. Hala nola, Atxolingo iturria, Moruko Brontze Aroko hondarrak eta mendizale taldeari izena eman dion Morkaiko mendiko tontorra.

Sargoate Elgoibarren zabaltzen

Irukurutzetara igo nahi duten mendizaleentzako igarolekua baino gehiago da Sargoate. Urtero, Santiago Egunez erromeria egiten dute horko belardi batean. Hala ere, Elgoibarren askok ez dute ezagutzen iturria dagoen gunea, eta hori aldatzen saiatu dira. Adibidez, urtero herritar askok parte hartzen duen mendi-bueltan atse-den eta indarberritze puntu gisa erabili dute.

Mendizaletasuna sustatzea ekimenaren helburu nagusia ez baldin bada ere, ez da dudarik albo-ondorioa dela. Ondarea berreskuratzeaz gain, bertaratu diren herritar batzuek aurretik haientzat arrotzak ziren bideak aurkitu dituzte. Komunitatea aberasteaz gain, herria eta ingurua hobeto ezagutzeko parada ezin hobeia dute. ■







MADDI SOROA

Baleren Bakaikoa Azurmendi



EHUKO
IRAKASLEA,
EKONOMIALARIA

Europar Legebiltzar barreiatua

EUROPAR BATASUNEKO LEGEBILTZARRA hautatu dugu eta aurreikusi behar da zer ekarriko digun datozen bost urteetan. Ziu-rrerik, Jean-Claude Juncker eskuindarrak eskuratuko du Europako Batzordeko buruzagitzeta eta orain arte egon denak, Barroso jaunak, egin duen lanaren oso antzekoa burutuko du, Merkelek eta *lobby* ekonomiko boteretsuek ez baitiote joko handirik egiten utziko. Beraz, austerizidioak jende txiroa jipoitzen jarraituko du eta klase ertainen gainbeherak ez du etenik izango.

Eta, zer gertatuko litzateke Martin Schulz sozialdemokrata hautatuko balute? Berdintsu. Nahiz Schulz eskuinaren “mailu” bezala saldu ziguten azken Legebiltzarreko lehendakari hautatua izan zenean. Baina hitz gogor samarrez gain, ez da gai izan EBko norabide neoliberalak galgatzeko edo birbideratzeko. Hala ere, gerta daiteke bi alderdiek bat egitea EB gobernatzeko.

Hauteskunde kanpainan isilik egon dira Merkataritza eta Inbertsiotarako Atlantikoko bi aldeetako Hitzarmen (TTIP edo ATCI) beldurgarriak gure artean izango dituen ondorioei buruz; kanpainako egun gehienak “matxismoa dela eta ez dela” aritu dira, gai horietan baitituzte aldeak, ez ekonomian non berdintsuak baitira bi alderdiak

Izan ere, gogoratu behar dugu sozialdemokrata eta popularrak bat eginda daudela herrialde askotako gobernuetan, koalizioan. Alemanian bi alderdiek gobernatzen dute eta Europako periferiaren egoera tamalgarria gobernu horri egotzi behar zaio, austeritatearen sustatzaile nagusia bera baita, Europako Batzordeak, Europako Banku Zentralak eta Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) osatzen duten Troikaren alboan. Grezian ere gobernuan bi alderdiak daude. Frantziako Estatuan Hollanderen sozialdemokrata eskuina bezain urruti joan dira jendarte gastuen murrizketetan. Eta abar.

Espainiako Estatuan, berriz, zein da bi alderdi nagusien arteko aldea ekonomia

arloan? Ederki asko dakigu 2011ko abuztuan Zapateroren zuzendaritzapean bi alderdiek Konstituzio higiezina aldatu zutela finantza erakundearen ordainketei lehentasuna emateko aurrekontu publikoaren gastu guztien artean. Horrela, kobratzen lehenak izango dira bankuak eta gero hiritarrok, zergadunok. EAEn eta Nafarroan ere bat egiten dute ekonomia eta abertzaleen aurkako politikan.

Bestalde, hauteskunde kanpainan isilik egon dira Merkataritza eta Inbertsiotarako Atlantikoko bi aldeetako Hitzarmen (TTIP edo ATCI) beldurgarriak gure artean izango dituen ondorioei buruz; kanpainako egun gehienak “matxismoa dela eta ez dela” aritu dira, gai horietan baitituzte aldeak, ez ekonomian non berdintsuak baitira bi alderdiak. Izan ere, Hitzarmen hori onesten bada, ondorio kezkarriak izango ditugu ekoizkin transgenikoei eta beste hainbat elikagai kaltegarriari atek irekiko zaizkielako. Multinazionalen mozkinak babestuta geratuko dira beraien murrizketak ematen badira estaturen bateko neurri politiko-ekonomikoak direla eta; kasu hauetan konpentsazioak eska ditzakete eta aurrekontu publikoek izango dute murrizketa horien erantzukizuna.

Hau guztia kontuan hartuta, EBko Legebiltzar berriak kemen ahula izango du Troikari aurre egiteko, dena kontrolpean baitaude bi alderdi nagusiek eta horiek *lobby* aseezinen zerbitzuan. Hala ere, Legebiltzar hori bozgorailu bikaina izango da makroekonomian hartuko diren neurri kaltegarriak aireratzeko, erabakitzeko eskubidea aldarrikatzeko edo Espainiako demokrazia defizitarioa salatzeko. Horiek izango dira, besteren artean, alderdi txikiak osatutako taldeek egin dezaketena.

Beraz, Europar Batasunak bere agintari ekonomikoek markatzen dioten bidetik jarraituko du, negozio handiak sustatuz eta horren ondorioz jendarte kohesioa ahulduz. Azken finean, bere legitimitatea eskasago bihurtuko da, kontatzen zizkiguten istorio miresgarriak ezerezean geratzen ari baitira. ■





Pello Zubiria Kamino

♦ ARGIAKO KAZETARIA

Santi Auzmendi hil dela

ERRAZEGI AHAZTEN DIRA gauzak. Guk ez daukagu ahazteko Santi Auzmendi. Maiatzaren 22an hil zen, kasik bezpera arte kaleetan barrena lasterka zebilen 73 urteko jostun lazkaotar donostiartua. *Jostun* diogu berak bere buruari hala deitzen ziolako, “Auzmendi. Sastre”, baina ez zetorkion handiegi *moda-sortzaile*. Zenbait iritzi eta bizitzako pasarte kontatu zizkion Amets Arzallusi 2006an. Baina euskal prentsa 1970eko hamarkadan ezagutu duenak aspalditik daki Auzmendiren berri. *Zeruko Argia*ren publizitate haiek (*Donostiako esti-*

katu. 1980an langileen esku geratu zen ordura arte kaputxinoena izandako *Zeruko Argia*, kooperatiba berriak kazetari izena ARGIA laburtu zion. Orain arteko krisirik latzenari egin behar zioten aurre langileek, astekaria inprimatzeko papera erosteko dirurik ez eta krediturik ez ematen banku bakar batek. Gure historia buruan daraman Joxe Mari Ostolazak kontaturik dakigu dirua jartzeaz gain bankuen aurrean beren buruak berme jartzeko esku zabaltasuna erakutsi zutenetakoa izan zela Santi Auzmendi, Hernanin denda txiki bat eduki ondo-



Gure historia buruan daraman Joxe Mari Ostolazak kontaturik dakigu dirua jartzeaz gain bankuen aurrean beren buruak berme jartzeko esku zabaltasuna erakutsi zutenetakoa izan zela Santi Auzmendi

loa) gogoratuko ditu: zenbatak jartzen zuen iragarkirik euskaraz 1977an, Franco hil eta trantsizio betean, abertzaleek mundua jan behar, baina, gaztelaniaz –“joango gara euskara sartzen pixkanaka azkenean dena euskaraz egin arte” eta gaur arte–, subentzio publikoa kontzeptua asmatzeke, artean ez Autonomiarik eta ez Preautonomiarik (*Consejo General Vasco* 1980 aldean sortu zuten!), eskukada bat langile eta kolaboratzaile sutsu gehi irakurle fidelak eta publizitatez laguntzeko lau

ren Donostian ari zena arrakastaz, lagundu eta laguntzaile gehiago konpromisora erakartzeko prest. Gero Donostian eta Gipuzkoan tendentzia markatu zuen Auzmendik. Korrika ikusi izan dugu azken urteotan. Heriotzaren atarian, ingurukoei eskatu omen die despedidarik ez antolatzeko, ez bada sagardotegian ospatzea. Ongi irudituko zaio guk gintonic batez despeditzea gure aspaldiko laguntzailea. ■



• IRITZIAREN LEIHOA

BERTSO BERRIAK

Maialen
Akizu



Doinua: Ternuarat.

Ijitoa naiz

Nahiz eta guztiok garen tik-tak soinuaren testigu, guri “etorkizun” hitzak aspaldi aldegin digu. Ze garapen, kontsumismo, ze krisi eta ze diru? Hamar gara familian ez bat, ez bi ta ez hiru. Furgoneta kaxaz bete, ez logela ez altzairu. Su bat erdigune eta parrilan lau bat bixigu. Gitarraren askatasun ilargiaren gatibu edozein izkina gure etxe bihurtzen dakigu.

Gaur aitak hala esan dit: “hitz egin beharra daukagu, laster ezkonduko zara merezi bezain ondradu”. Txanpaina atera eta irrifartsu nahiz afaldu, salduta den gorputz baten bihotzak zentzurik al du? Ez nuke nahi ikasteko dudak gogoa itzaldtu, biziak mundura sortu ta nire bizia galdu. Malko artean amonak besarkatuz dit azaldu: “Ahoa itxi behar duzu eta bi hankak zabaldu”.

Bikote polita egiten dugula dute berretsi eta zapiaren proba egingo didate etzi. “Heldu dira hamazazpi urteko Joan eta Jesi” orri idatzien aurkako borroka ez du merezi. Baina ez dut payo izan nahi nahiz eta askok ez sinetsi. Poz, alaitasun, musika artean naizenez hezi horrela segiko dugu hain bitxi ta hain berezi gure munduan bilduta munduarengandik ihesi. ■

Ikastolen Elkarteak antolatutako Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketan sorta irabazlea.



JAKES LARRE

Bea Sallaberry

EUSKARA IRAKASLEA ♦

Jardiner, c'est résister

ETXEBIZITZAREN JABE IZATEKO esperantza oraindik duten baionesek badute, doa deskart, azken *El dorado*: Séqué auzoa, azken urteetan osoki sortua. Eko-azua nahi luke eta perspektiba horretan eztabaidagai izan da proiektua.

Bada baratze kolektibo tipi bat han: urbanizazioari errekuaratu behar izan gabe, urbanizaziotik salbatu den lur peza. Espantuko gauzarik ez bada ere, zirrargarria zaidan txokoa da.

Oihan bazterrean kausitzen da, haritzondo ikaragarrien maldan eta berriki landatu fruitu arbolondoen artean, hesi garbiz babestu paradisu zatia. Eden horrek badu *Kolkebozetik*, jabea herria da, probetxua erabiltzaileena eta autogestioan kudeatua da: inguruko bizitegi-tako jende osatu komunitateak du kudeatzen. Aterpea denena da eta han pruntki lerrotaturik daude denen tresnak, sarde, aitzur eta oraindik enetzat funtzio sekretuko zenbait gauza, bakoitzak txandaka erabiltzekoak. Badira lur alor ttipiak, familiako bana, fizela txirikordaz zedarrituak. Inguruetan, lur sail pribatuen alboan, parte komunak dira, guziek guzientzat landuak. Noizbehinka, ametsarazten dit, hoge urte nituenean bezala, mundua alda daitekeela, sistema enpoildu eta antolaketa libertarioan gara gaitzkeela.

*Bada giro oso bat!
Auzo artekoa,
elkartasunezkoa,
elkarrengandik
ikastekoa. Alabaina,
denak baratzezain
hasiberriak, nehorik
ez du sekulakoa
ateratzeko asmorik*

Gainera bada giro oso bat! Auzo artekoa, elkartasunezkoa, elkarrengandik ikastekoa. Alabaina, denak baratzezain hasiberriak, nehorik ez du sekulakoa ateratzeko asmorik, galdetzen diogun gauza bakarra da zerbaixka eskaintzea, egin indarren truk. Denbora-pasako aitzakia da eta mundu nahas-mahasgarritik ihes egitekoa, eta bide batez, ekartzen du auzoko jende zenbaitekin trukatzeko, birgizarteratzea hots. Dena da egitekoa oraino eta plazera da, goiz izanik ere eguzkiak jadanik kitzikatzen zaituela, izerditzea iraulen eta lur porroskatzeko. Betegarria da lur gizen sailen artetik burua altxatu eta nihaur bezain ez jakituna (ignorantzia ere kolektiboa baita) den ondoko lur saillekoarekin hizketan aritzea: gauzak nola antolatu, ereiteko garaiak, bareen neurri ikaragarria.

Eta goxoa da amestea sukaldeko mahai iskinean, igande goizez, eguerdiko apairuko, nola bihikatuko dituzun zure ilar biribil teka bildu berriak, hazi berde bixiak ontziratu arau hauen berdura usain fresko lerdanak gela osoa ziprztinduko duela.

Lurra, autogestioa, indarra eta saria ukaitea, integratzea, ausatzea. Maila bat baino gehiagotan zoriona eragiteko tresna bat. *Jardiner, c'est résister.* ■

■



DANI BLANCO



**Itxaro
Borda**



IDAZLEA

Hor daude

ETA EUSKARA plantakoan mintzo dira. Guztia dute alabaina herritar zintzoen xarmatzeko. Euskal Herrian ere Fronte Nazionala indartuta atera da Europako hauteskundeetan, Frantzian bezalaxe funtsean. Goizon nazka nabaritzen dut, ihes egiteko gogoa, baina gorotz urrintsuak zikintzen ez duen gunerik ez da gehiago. Europa etsai omen dute. Laborariek, nagusiek, ikasleek eta erakundeek alta, Europarengandik garapenerako diru mordoa eskuratzen dute. FN bozka halatan haserre azaltzeko baliabidea liteke.

FN alderdiari bozaren emateko intenzioa premiazkoa ote den uste dut. Auzoa-

rekiko gorrotoa dago oinarrian, etengabe-ko insatisfakzioa, frustrazio morbidoa, antisemitismoa, islamofobia, homofobia, misoginia eta intolerantzia ikusgarria: telebistan irabazle frontistak ez zion hitz bihirik uzten arerio ekologistari.

FN ari da boterearen mailak eskuratzen. Denbora badu eta jendaldeei sinetsarazten zaie bozkatzeak ez duela balio, pentsatzeak are gutxiago, aniztasunak estatuaren handitasuna mehatxatzen duela eta larderia dela ezinbesteko goberna tresna.

On est mal.

Gaizki gaude. ■





Iratxe Esnaola

♦ IDAZLEA

Egun bat dirugabe bizitzeko instrukzioak

DUELA EZ ASKO, kontu korrontean 0 euro nuelarik eta enplegu perspektiba hurbilik ez, gorabeheraka bizi izaten nuen egunerokoa. Pertsona maiteen babes ekonomikoak eta familiak eman izan didan babes baldintzarik gabeak lagundu zidaten beste askorentzat askoz muturragokoa den egoerari aurre egiten. Gora-beherek beraiekin ekarri ohi dituzte argi-ilunak, ilunean isolamendu mingarri zaizkigunak, baina argitara igoera sutsuagoak ere ahalbidetzen dituztenak, beharrrizanak eta bizinahiak bultzatuta-edo. Halako goraldi batean eta auto zaintzari loturik, dirurik gabe egun bat nola biziko nukeen imajinatzeari ekin nion. Ez, inondik ere, pobretzen eta prekarizatzen gaituzten *asterilketak* eta politikak onartu eta ongizate sozialaren ardura norbanakoagan ezarriz, baina bai, oster, norbere autonomiatik norbere eta besteen ongintzarako bideak asmatzeko asmoz. Hauze izan zen dirurik gabe bizitzeko instrukzioen lehen hazia, eta denborarekin, hamar puntuko dekalogo bat burutu nuen. Nola biziko zenukete zuek egun bat dirurik gabe? Ez da galdera txarra aldamenekoari egiteko, irudimena bizkortzen lagun baitezake eta irudimenarekin eguneroko berri bat antolatzen. Pertsonako dirurik gabeko egun balizko bat bada hortik zehar. Gure bizitzen alaigarri eta gorazarre izan daitezkeen egunak, bai. Hemen paratzen ditut nireak gaur:

1. Irten kalera egunsentia aurretik. Kaleko horma batean pintada bat egin patxadaz. Pintadak munda hobetzeko balio dezala, Violeta Parrak esan bezala: “*Si yo levanto mi voz, no es tan solo por gritar*”.

2. Joan lorategi publiko batera. Bilatu loreak eta zuhaitzak. *Une borretantxe* eutsi erlojuari eta erauzi. Beste denbora bat zabaltzen da orain eta denbora hau bere buruaz betetzen da akordeoi bat bezala.

3. Ibili hirian pentsamenduak ordenatzeko. Behin zalantza zenuena, gaur jarrera politikoa duzu: gauza onen gorazarre egin eta zoria oneratu.

4. Deitu bihotza alaitzen dizuten lagunei. Ametsak eraikitzen dituzten lagunak, amets eneak, amets zureak, amets gureak. Zazpitan etortzekoak badira, laurak direnerako pozik egoten hasiko zara.

5. Aspaldiko ezagun batek kalean geratuko zaitu. Enpleguaz galdetu eta zure ustezko zeregin gabetasunari muturra jarriko dio. Ez izan beldur eta errepikatu: “Nik ere badut nire egia eta bankero jaunarenak bezainbat edo gehiago balio du”.

6. Lapurtu gose eta egarri zarenean lapurretak minik ezin egin dionari. Edan eta jan bertatik, hau gure gizartearen ifrentzua baita, zuentzat eta guztientzat emana izan dena, amen.

7. Egin barre, are gogorik ez baduzu ere. Ireki aurrena ahoa eta gora eragin ezpain ertzei. Mugitu jauzi txikietan sabela, sorbaldak. Masailak zabalduko dira, begiak itxi eta errealtatea edertu.

8. Banketxe baten atarira joan, arnasa sakon hartu eta kantatu: “Txin-txin, txin-txin diruaren hotsa, haren gainetik entzun nahi dut gaur elkartasunaren ahotza”.

9. Etzan lurrean eta begiratu gaua. Izarrak dira zure zilarra. Ilargi betearen gazta zure

urra.

10. Sentitu aberats, aberats bihotz bat eta hainbeste sentimen izateaz. Lapurtzerik ez dizuten kontzientzia betiko zure duzula jakiteaz. ■



Antton Olariaga



«Ipuin bakoitzak hurrengoa irakurtzeko grina piztu behar du, neurri batean»

Ipuin liburua du Iban Zalduak (Donostia, 1966) argitara zaharra ez. Inon ez, inoiz ez dugu, Elkar argitaletxeak publikaturik. Ipuin liburuetan ez ohikoa, kasik berrogei testuren bilduma. Antologia izan gabe ere, era guztietako ipuinak irakurri ditugu, Zalduaren estiloan beti.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Zaldi Ero

Ipuin liburu mardula. Ezer baino lehen, horixe deigarri...

Hogeita hamazazpi ipuin sartu ditut liburu honetan, gehi beste testu bat, gehi kontrazaleko mikroipuina, barruan dagoen ipuin baten bertsioa... Askok dira, baina aurreko liburua, *Idazten ari dela idazten duen idazlea*, honen umea da, nahiz eta lehenago argitaratu. Sail berekoak dira hango eta hemengo ipuinak. Biodiskografiak idazteko proiektuan ari nintzen lanean, eta, bestalde, bestelako ipuinak ari nintzen idazten, harik eta ipuin mordoa pilatu nuen arte. Denak bata bestearekin asko lotuta zeudela sumatzen nuen eta, halako batean, liburua ikusi nuen. Nire kasuan, liburua dagoela ikusi behar dut. Dena dela, lehenengo lana ipuinak idaztea dut. Gero dator liburua...

Biodiskografiak-en kasuan bestela jardun zenuela esan zenigun ARGIAN bertan...

Biodiskografiak-en kasuan, proiektua nuen, hari bat, eta burutu nuen. Bestela idazten ari nintzen ipuinen kasuan, berriz, ez nuen ipuin-liburua-
ren egiturarik ikusten. Hurrena, konturatu nintzen ipuin askok literatura bera zutela ardatz. Hortaz, bi ziren liburuak: batean, irakurketa eta literaturaren ingurukoak –*Idazten ari dela*... liburua, azken finean–, eta oraingo hau, mardulagoa, tematika zabalagoa zukeena. Lehenengo hura garbi ikusten nuen, eta halaxe argitaratu zen Elkarren. Bestea, mardulagoa, Alberdanian nahi nuen, baina bate-

“Nobelaren nagusigoa hausten saiatzen naiz irakurle klubetan”

ko *standby*-n sartu zela, besteko neure gorabeherak, atzeratu egin zen asmoa. Ipuinak berrartu, kimatu, hainbat ipuin baztertu, liburuaren giroari lotzen zitzaizkion zenbait berri idatzi, eta honako *Inon ez, inoiz ez* hau argitaratu da.

Ipuinak idazteko mila modu eta bat gehiago ditugu lan honetan. Era guztietako ipuinak ...

Teknika aldetik oso ezberdinak dira, bai. Panoplia osoa dago, nolabait. Katalogo bat ere izan zitekeen. Dena dela, orain ari naiz ni horretaz jabetzen, jendeak ohar egiten didanean. Ez da ipuin antologia bat, ipuin guztiak berriak baitira, liburuan sekula argitaratu gabeak, baina landu ditudan joera guztietako ipuinen bilduma da, nolabait.

Inon ez, inoiz ez dugu azalean izenburu. Barruan, berriz, beste atal bat ere bada, *Hemen, orain*, izenburura ekarri ez baduzu ere.

Hemen, orain hori ondo dagokio atal bati, baina ez besterik. Azalera ekarritz gero, irakurlearen arreta desbideratzeko arriskua zegoen. Bestalde, izenburu iradokitzaileagoa iruditzen zait *Inon ez, inoiz ez*, bestea baino.

Hemen, orain, jakina, euskal gauza da, Ramon Saizarbitoriak, eta zuk zeuk, frankotan aipatu izan duzuen. Euskal gauza...

Bai, gai nagusienetakoa da, baina, ziurrenik zorionez, ez bakarra. Izan ere, euskal irakurleengan bi joera daudela esango nuke:



batzuen ustez, gutxi idatzi da gai horri buruz –baina euskaraz irakurtzen dutenen artean ez dut uste gehienak direnik–, eta beste batzuen iritziz, aldiz, beti matrakan ari gara. Ez dut inor engainatu nahi, aurkezpenean bertan esan nuen gai horri buruzko ipuin dezente dagoela liburu honetan, baina utz dezagun, behintzat, alde horretatik, izenburua bakean.

Idazle ez ezik, Historia irakasle zara UPV/EHU. Ez duzu gutxi idatzi euskal gauzari buruz. Zer diozu gauzaren egoeraz?

Ez dut uste nire iritzia axola duenik, doktrina emateko ezgai sentitzen naiz. Zalantza beteko iritzi bat emango nizuke eta jendeak ez du hori eskatzen, iritzi sendoak baizik. Egia da gaztetan iritzi irmoagoak nituela kontu horri buruz, beste askori buruz bezala. Irakurtzen diot artikulua halako bati, eta alderdi baliagarriak ikusten dizkiot. Irakurtzen diot artikulua aurrekoaren kontrako jarrera defenditzen duenari, eta han ere puntu positiboak ikusten ditut. Orduan, pentsatzen dut nortasun txikia dudala... Kar, kar... Gaztetan iritzia eskatu izan balidate errazago emango nituzkeen, eta hanka ere sartuko nukeen etengabe. Horrek ez du esan nahi politikan parte-hartzeari uko egiten diodanik: baina ez hainbeste iritzi-emaile bezala, herritar bezala baizik. Fikzioa, alde horretatik, baliagarriagoa zait, doktrinatu gabe gertatu zaigunaz edo gertatzen ari zaigunaz inpresio batzuk jasotzeko eta botatzeko alegia, edo nire zalantzak islatzeko: ez da horren inbasi-

“Esango nuke liburu hau gehiago ari dela bizitzaz, literaturaz baino”.

boa, nolabait esateko. Inpresioa daukat errazago iristen naizela bide horretatik egia bat kontatzera, nire iritzia modu sistematiko batean egituratuta baino. Eta, hala eta guztiz ere, auskalo... literatura txar asko egin daiteke bide horretatik, orobat...

Paparrean intsumisioaren kontrako intsignia ibili ohi duzu oraindik?

Bai, jakaren arabera. Fusil bat apurtuta. Horrekin bat egiten dut oraindik: intsumisioak ez zuen bere helburua lortu, ez baitzen soilik soldaduskaren amaiera, gizartearen desmilitarizazioa baizik. Izan ere, ETak armak utzi izanagatik ere ez gara bizi gizarte desmilitarizatu batean. Armak egiten eta esportatzen segitzen dugu, bai Hirugarren Mundura, eta bai Hirugarren Mundu ez denera ere. Estatuen aldetik gizartea militarizatuago dago, nahiz eta derrigorrezko soldadutzarik ez izan indarrean. Adierazpen askatasunari egiten zaizkion erasoak dira frogak. Hor da beti polizia. Horretan borroka egin behar da oraindik. Baina, begira, iritzia ematen ari naiz jada, nire hitza janez...

Inon ez, inoiz ez dugu izenburu. Bi atal bereziak...

Hemen, orain atalekoak, gatazkaren ingurukoak, zein eta zein izan behar zuten ez zegoen dudarik. Kronologikoki antolatuta daude, gainera, 2006tik gaur egunera arte. Gainerakoan, bi atal aski homogeneo eraiki nahi nituen. Izenburua erreferentziatzat hartu eta

haren oihartzuna izan zezaketen ipuinak bildu ditut batean eta bestean. Lehenengoan, leku eta paisaiarekin lotutakoak, nolabait; hirugarrenean, denborari estuago lotzen zaizkionak. Ez da beti gauza automatikoa izan, hala ere. Bestalde, ipuinen kokapena ere landu dut, paralelismoak, loturak egin ditut –nire loturak dira, neure irizpidearen arabera–, irakurleari jarraibide bat emanez... Baina, horixe, jarraibide bat besterik ez. Nire ustez, ipuin-liburu bat ezin da nobela baten moduan irakurri, arrapaladan, ipuin bakoitza nobela bat baita. Hala, ipuin bakoitzak hurrengo irakurtzeko grina piztu behar du, baina ez neurritz gainezka, ipuinaren efektua galdu egingo da bestela. Neure ustez ari naiz, neure teoriatik; besterik da irakurleak duen ustea eta hartuko duen irakurbidea: azken finean, ipuin liburuen irakurlea subiranoagoa da, independenteagoa, berez, nobelen irakurlea baino...

Biodiskografiak eta Idazten ari dela... lanetan ageri ziren gaiak ageri dira honetan ere. Horra musika, literatura bera... Konstanteak dituzu zure idazlanean.

Ipuin batzuek izan zezaketen lekua *Idazten ari dela...* hartan, baina horrez gain bestelako edukia jorratzen duten ipuinak jarri ditut hemen. Orainxe irakurri dut *Canciones de amor y de lluvia*, Sergi Pàmies-ena. Ez dakit irakurria duzun...

Ez...

Asko estimatzen dudan ipuinlariaren liburua da. Eta ipuin askotan idazlea da protagonista, batera eta bestera dabilena, hitzaldiak eskaintzen eta abar. Normala ere bada. Horixe da zure mundua, partez behintzat, eta horretara jotzen duzu nahitaez. Ipuinari ekiteko abiapuntua eman ohi dizu. Baina liburu honetan dosi txikiagotan erabili dut literaturaren inguruko mundua bera, aurrekoan baino; esango nuke liburu hau gehiago ari dela bizitzaz, literaturaz baino.

Irakurle klubak zuzentzen ari zara joan deneko hamar urtean. Horietan ariko ez bazina literaturak –metaliteraturak, beharbada–, hainbeste tarte izango luke zure lanetan?

Seguru asko, ez. Hasteko, zenbait ipuin ez nukeen idatziko. Beste zenbait, berriz, idatzi bai, baina ez modu horretara. Efektua zehatz zein den ez dakit. Klubean ibili, ez ibili, ondorioa nolakoa izango zen, ez dakit. Kontua da horretan nabilela joan den hamaika urte honetan... Proposamena egin zidatenean, bitxia iruditut zitzaidan. Ez nuen giro hori ezagutzen, behin ere ez nintzen halako

batean izana. Arrasateko liburutegira joan behar izan nintzen, nola funtzionatzen zuen ikustera. Harrezkero, ez diot Gasteizko kluba koordinatzeari utzi. Eguneratuta egoten lagundu dit, eta maite nituen liburuak berrirakurtzeko aukera ere eman dit, eta haietan sakontzeko modua. Eta berrirakurketak asko erakutsi dit. Zenbait egile berreskuratu egin dut, eta garai batean hainbeste estimatzen ez nuen zenbaiten lanaz gozatu egin dut. Batzuetan, gaztelaniaz irakurriak nituen; haiek euskaraz irakurri eta asko ikasi dudala uste dut. Idazle eta irakurle naizen aldetik, asko eman dit klubak. Maila pertsonalean, adiskide handiak egin ditut. Gaur egun, haiek gabe ez dut bizitza kontzebitzen. Klubean ezagutu nuen Angel Erro, edo Mikel Ayerbe, edo Asun Agiriano, eta beste hainbat lagun, asko eskertzen dudak zerbait.

Nobelaz beste ere irakurtzen da zure klubetan.

Bai. Nobelaren nagusigoa hor da beti, baina hegemonia hori pixka bat hausten saiatzen naiz klubetan, beste generoak ere sarrera izan dezaten. Irakurlea nobelak irakurtzen ohituta dago. Horretan hezi gaituzte. Ipuinak ere, ez pentsa, ez du irakurri ohi jendeak.

Hor dago poesia ere, edo saiakera, edo antzerkia... gutxiago irakurtzen diren generoak, beti, baina irakurtzen ditugunak klubean, nobela baino dosi txikiagoetan bada ere. Irakurle taldeetako partaideak gogo onez hartu ohi du nobela ez den testua irakurtzea, baina, era berean, sorpresa adierazten du. Klubean hasiberriak, behintzat.

Saizarbitoria aurkezle

“Aurkezpena egin behar eta zeure burua babestu nahi izaten duzu. Irakurle onak nahi izaten ditut ondoan. Eta irakurle onenak, maiz, idazleak izaten dira. Alde horretatik, Saizarbitoria hor egoteak balioa eranstean dio aurkezpenaren ekintza neurri batean publizitarioari. Bestalde, estimu handitan dut Ramon, eta Atxaga, eta Lertxundi, Eider Rodriguez, Pello Lizarralde... Askok lagundu didate aurkezpenetan, urte hauetan zehar. Ni ez bainaiz batere seguru sentitzen egindako lanaz. Inork liburua irakurri eta gustatu zaiola esatea, bermea dut, babesa. Saizarbitoria aurkezpenean izatea ohore handia izan nuen, Ibon Egaña ondoan izatea bezainbat, gurean dugun kritikaririk finena iruditzen baitzait; liburu honen ondorengo aurkezpenetan Mikel Ayerbe, Jokin Muñoz, Ana Malagon eta Isabel Etxeberria izan ditut edo izango ditut alboan. Haiek hitz egiteak, gainera, niri neure obrari buruz gehiegi ez hitz egiten laguntzen dit, horretaz abusatu egiten baitugu idazleok, orainxe elkarriketa honetan egin dudak bezala”.

Ez da asko, Ana Toledo irakasle eta euskaltzainak zioen euskarazko literatura hazi egin dela, baina hartzaileak ez duela proportzio berean gora egin. Irakurleak urri...

Inoiz komentatu dut paradoxa: “Non da euskal literaturaren salbazioa? Idazleen kopuruaren zabalkuntza mugagabea”. Zenbat eta idazle gehiago izan, orduan eta irakurle gehiago, haiek baitira ondokoen lanak irakurtzen dituztenak, sikiera espiatzeko bada ere. Euskaldungo osoa idazle bihurtzen den egunean, irakurleari dagokionez salbatuta legoke euskal literatura. Baina, *boutadeak* alde batera utzita, ez pentsa haranzko literaturetan askoz hobeto bizi direnik, haiek beti ere eskala alde badute ere. Gaztelaniatzko liburu produkzioa hartu, eta konparatu irakurketa eta salmenta indizeekin, eta oso liburu gutxi zabaltzen dira neurri batetik gora. Eskaintza izugarria da, eskaria, berriz, txikia. Bestalde, gizarteak irakurtzen du, baina gero eta gehiago liburua ez beste bide batzuetan barrena. Gurean, diglosi egoerak areagotu egiten du irakurle urritasuna. Batzuk kexatzen dira *best seller* motako euskal literaturaren faltaz, baina euskarazko irakurleak, bestalde, elebidun izanik, beti du beste esparru batzuetara jotzeko modua, dela frantses sistemara, dela gaztelaniatzkora. Gure artean lehiatzen gara, batetik, baina beste literatura —edo liburugintza, zenbait liburuk literaturatik gutxi dute-eta—, baten kontra ere bai. Horrek estutu egiten du gure merkatua, baina horiexek dira joko-arauak, eta onartu beste erremediorik ez dugu.

Bernardo Atxagaren *Nevadako egunak* aztertu zenuten martxoan zure gidaritzapeko irakurle klubean. Liburuko pasarte batean, Renoko eskolako irakaslea ageri da, ikasleei literatura liburutik irakurtzen...

Anjel Lertxundiri ere kezka bera irakurri izan diot...

Behin eta berriz eta askotan...

Eta irakasleek gurean irakurtzen ez badute, nola transmititu zaletasuna?

Tira, irakasleak ez du “gerta lekiok” hitzean eta hortzean erabili beharrik, baina hor da beti nor-nori formako aditz paradigma guz-

“ETAk armak utzi izanagatik ere ez gara bizi gizarte desmilitarizatu batean”.

tiak erakusten, lantzen, eta ikasleei eskatzen...

Bai... bai... Azken finean, susmoa dut irakurtzeko ohiturari dagokionez nahiko espainolak garela. Espainian irakurketa indizeak txikiak izan dira historikoki. Zein irakurketa tradizio jaso dugu hortik? Ipar Euskal Herrian bestelako handicap bat dute, jakobinismoa, alegia, nahiz eta hor gehiago eta hobeto irakurtzen dela esango nukeen; ez euskaraz, baina, eta ardatz literarioa Hegoaldera aldatu izanak ez du ziurrenik horretan asko lagundu. Literatura maite duenak, liburuak irakurtzeko ohitura duenak, irakurtzeari garrantzia ematen dion jende ehunekoa urria da, Espainiako kultur historiaren ondorioz, besteak beste. Irakaskuntzan zehar irakurtzera bultzatuko zaituen irakasleak aurkitzeko aukera, beraz, ziurrenik txikiagoa da hemen Frantzian edo AEBetan baino, eta alde horretatik ez nau harritzen Bernardo Atxagak *Nevadako*... liburuan jasotzen duen inpresio onak AEBko irakaskuntzaren eta irakurketa-aren arteko harremanaz... Liburuaren kultur estatusa txikia da Espainian, Trantsizio garaian gorantz egin zuen zertxobait, baina ezin izan du aurreko historia ezabatu... Nik, alde horretatik, zorte handia izan nuen institutuan, irakurtzeko zaletasuna baitzuten irakasle izan nituenak; asko zor diet irakasle haiei. Baina onartu behar da ez dela agian ohikoena. Horretaz gogoeta egin nahiko nuke, artikulua dabilkit buruan... ■



Kataluniarren ipuin hori

Eskerrak ARGIAK Bartzelonara joateko tren txartela ordaindu digun, merezi izan baitu *Hobe kontatzen ez badidazu* (Pasazaite, 2014) ipuin katalanen antologiari buruz hitz egiteko konde-hirirainoko bidaiak. Bartzelona, Katalunia osoa bezala, momentu interesgarrian dago eta ondo ezagutzen ditu hemengo jendeak eta kantoiak mintzakide izango dugun Aritz Galarragak –gida turistiko izateaz gain, liburuko ipuinen hautatzailea ere badena; itzulpenen faktura Gerardo Markuletak kobratu du Pasazaite argitaletxearen eskutik–.

| GORKA BEREZIARTUA MITXELENA |

FONTANA METRO GELTOKIAN dugu hitzordua. Eskailera mekanikoek igoeran eskaintzen duten angeluari esker, kazetariari gradualki agertzen zaio eite anglosaxoiko tipo bat, lehenbizi Camper oinetakoak, gero galtza bakero estuak, jertse granate polit bat –galdetu behar dio non erosi duen–, eta *Berriako* zuta-beetako argazkikoen aldean bizar gehiago daukan aurpegi hau. Kortesiakzko aurkezpen hitzen ondoren galdetzen dio ea non egin nahi duen elkarrizketa. “Auzoan paseatzen dugun bitartean?”. Grabagailuaren rec botoia sakatu aurretik azaldu du estazio honen pareko pisu batean biltzen direla Juan Marséren *Si te dicen que caí*-ko anarkistak. “Literatura asko dauka auzoak, ikusiko duzu”.

Edukiko du, ez diogu ezetz, baina Asturias karrikan oinez hasita lehen begi kolpean beste zerbaitek deitzen du arreta: Gràciako etxe askoren balkoiak dekoratzen dituzten Esteladak, mugimendu independentistaren indarraren erakusle. Eta kontrastean, ipuin liburua ez da bereziki “politikoa”. “Akaso orain lehentasunen ordena aldatuko zen pixka bat, baina orain artean ‘eguneroko bizitza’ izan da katalanen gatazka nagusia. Bai behintzat idazle des- takagarriena”, azaldu du Galarragak. Eta erantsi: “Gatazka nagusi horretan gatazka ugari barnebiltzen direla oso garbi izanda: fabrikako etorkizunari iskin egitea, nagusiak erne dizun umekia abortatzea, hiriburu txukun jartzeko landa eremua esplotatzea”.

Kontatzeko modu bat

Oinez-oinez Plaça del Diamantera iritsi gara. “Merçe Rodoredaren nobela ezagutzen?”. Kazetariak lotsaz aitoritzen dio ezetz, ez duela oraindik gerraosteko nobela psikologiko ezaguna irakurri. Deseroso dago, iruditzen bai-

tzaio ez duela serio itxurarik ematen literatura katalanaz hitz egitera etorri den eta irakurketa- tan horrelako hutsuneak dituen jurnalistak. Baina keba, hitz beste egin eta imaginazio handiz Diamant izena jarri dioten tabernaren terrazarantz buru-keina egin du Galarragak. Eta galdetzen: “Nahi duzu garagardo bat?”. Erantzun aurretik, bigarren galdera: “Baietz erantzungo baduzu, Moritz bat izatea nahi?”.

Edalontzi pareta mahaian, ipuinen tonuaz galdetu diogu, darien ironiaz, era berean garra- tza eta neurrizkoa. *Seny* kataluniar famatua hori ote den. “Kasu honetan, euskaldunen seny delakoarekin dago lotuta: bai editoreak bai eta itzultzaileak ere, oso modu edukatuan, gomendatu zidaten hobe zela Monzóren ipuin gore xamar bat aukeraketatik apartatzea. Baina, bestela, bertute gisa ikusten dut literatu- ran kontentzio hori, iradokitzea baina ez era- bat erakustea, amildegiraino eramatea baina azken bultzada ez ematea”.

Idazle bakoitzak beretik duena gorabehe- ra, ezaugarri amankomunak ugari direla esa- ten diogu –aipatutako ironiaz eta “egunero- kotasunaz” gain, istorio guztien izaera urbanoa nabarmentzekoa da, adibidez–, eta horrek pentsatzera eramane gaituela Monzó patroia- ren uberan ipuingile eskola bat sortu dela. “Haiek esango dizute ezetz –hain zuzen, Francesc Serésék Zarauzko aurkezpenean esan zuen ezetz–, baina nik uste dut zer edo zer partekatzen dutela. Monzóren aitatasunaz hitz egitea gehiegixko izango da, baina gutxie- nez markatu du eredu bat. Eredu bat kopia- tzeko, kontrakoa egiteko edo kasurik ez egite- ko, baina eredu bat”. Antologiaren egilearen ustez “aire –segur aski kontaminatu– berbera arnasten dute” idazleek eta ez da gehiegikeria “Bartzelona marka” batez hitz egitea.



Lehortea?

Apar bat edalontzian utzita altxa gara –bai ona Moritz marka hau–, Gràciako mini-tour turistikoarekin jarraitzeko. Verdi karrikako zinemak pasa –Marséren haurtzaroa islatzen duten istorioen beste leku bat–, eta liburu denda baten atarian geratu gara. Taifa. “Auzoko denda bat da, baina fondo polita dauka”.

Katalanez idatzita eta katalanera itzulita aurki daitezkeen titulu kopuruarengatik euskaldun jatorrari inbidia ematen dioten apalen artean, prospektiba ariketa egiteko eskatu diogu Galarragari. 20 urte inguruko aldea dago *Hobe kontatzen ez badidazu* liburuiko idazlerik zaharrenaren (Monzó) eta gazteenaren (Serés) artean. Ba al dator belaunaldi berriak azkeneko horren atzetik? “Badator, baina ez oraingoz zaharrenak paretik kentzeko indarrarekin. Antologiako autorerik gazteena 1972koa izatea ez da, zoritxarrez, bilatutako zerbait. Gustura sartuko nukeen idazle gazteagoren bat. Baldin eta gainontzekoen mailarik izan balu. Ez dut halakorik aurkitu, ordea. Eta ez da bakarrik antologia honetarako”.

Alimaleko produkzioa egon arren, ipuin-gile katalan berrien punteria ez da, Galarragaren iritziz, liburuan bildu dituen egileena bezain ona. Hori bai, kanpoan geratu diren idazle beterranoekin beste antologia baterako materiala egongo litzatekeela uste du. “Baina iruditzen zait hemendik aurrera –orain

artean egin ez denez– modu erregularrago eta sistematikoagoan hasi beharko ginatkeela itzultzen gure ondoan ditugun eta hala ere erabat ezezagun zaizkigun literatura horietatik, adibidez galegotik, adibidez katalanetik, Madrilen eskala egin beharrik gabe”.

Nahita edo nahi gabe, Madril askoren ahotan dabil gaur Bartzelonan ordea. Maiatzaren 17a dela esatea ahaztu zait artikulua hasieran: etxeko taldeak Espainiako futbol liga du jokoan Atlético Madriden aurka eta elkarrizketa bukatzean partidua taberna batean ikustera joan gara, garagardo bat –ez dut berriz marka errepikatuko publizitaterik ordaintzen ez diguten bitartean– hartu bitartean.

Tentsioa bai, baina joko askorik gabeko partiduan Barça aurreratu da Alexisek lehen zatian jaurtitako misil bati esker; gero komeriak bigarren zatiko korner batean Diego Godín koltxoneroa zezena bezala sartuta buruz egin duen berdinketarekin. Banakoa aski zuten madrildarrek irabazteko baina Mesik, aurtengo denboraldiko gorabeherak ahaztu nahian korri egingo balu bezala, lau jokalar eta atezaina atzean utzita sartu duen golak eman dio Liga Bartzelonari. Eta hor ja ahaztu ditugu antologiak, idazleak, belau-naldiak eta ipuin guztiak. Canaletesera goaz garaipena ospatzera. Gaua nola bukatuko den, hobe kontatzen ez badidut. ■



Lugorri utzitakoaren sentipena

Maitzaren 14an Barbecho dantzalan garaikidearen aurrestreinaldia eskaini zigun Natxo Montero bilbotarrak, Arriaga Antzokian. Harekin Laia Cabrera antzezle eta dantzari kataluniarra aritu da sormen prozesua bera ardatz duen obra honetan. Gelatxoak programak lagundu du. Ekainaren 14an estreinatuko da.

| MYRIAM GARZIA |

Nolatan Barbecho?

Carni di prima qualità lanarekin aritu naiz aurreko bi urteetan. Argentina, Kolonbia eta Hego Korean erakusteko aukera izan dugu, aldiz, Euskal Herrian gutxitan programatu gaituzte... Lugorri egoeran nengoela sentitzen nuen, aldaketa asko etortzeko prest baina era berean ez nuen nire burua behartu nahi. Desorekan sentitzen nintzen, bakarrik, ideiak ez ziren dantzatik etorritakoa, maskarak, normalean erabiltzen dudak arropa... materiala banuen baina inolako antolamendurik gabe.

Noiz sortu zen Laia Cabrerarekin lan egiteko aukera?

Antzezlea bada ere, gustuko nuen bere gorputza gestioatzeko modua eta elkarrekin lan egitea proposatu nion. Bartzelonan elkartu ginen hamar egunez, eta bilduta nuen material guztiarekin hasi ginen. Gironan egin genuen bigarren egonaldia. Absurdua ere lan egiteko baliatu dugu.

Lurra funtsezko elementua duzue lan honetan.

Zerbait organikoa nahi nuen. Lurra oso eszenikoa da. Nire gurasoak Gaztelakoak dira eta gozoan nituen lur sail horiek.

Pako Revueltas aktorearen kanpoko begirada izan duzue lagungarri.

Nire egoera pertsonalaz hitz egiten duen pieza honek azkenean, sormen prozesuaren



Natxo Monterok elektrikari izateko ikasketak burutu bazituen ere, Santutxuko Gaztedi taldean ekin zion dantzari.

Oraindik ere euskal dantza pausoak nahasten ditu mugimendu garaikideen artean, bere hastapenen keinu modura. Gerora, dantzari garaikide ezagunekin aritu izan da lanean, hala nola, Matxalen Bilbao, Cristina Quijera edota Idoia Zabaletarekin. Hainbat urte eman ditu atzerrian, besteak beste Lisboa, Bartzelonan, Bruselan eta Frantzian.



inguruan murgiltzera eramane gaitu. Pakok asko daki eszenaz eta materialari forma eman dio, kaosa antolatu du. Bestetik, Arriagako datoren presioa hor zegoen, jendea dantza formala ikustera doa, ez proposamen berritzaileak edota apurtzaileak. Sufritu egin dut lan honekin. Prosezu gogorra izan da, eta nik ez dut ikasi nahi sufri-mendutik, porrota ere aukeratzen onartu dut.

Pieza hau dantzatik harago doa, ezta?

Publikoaren egarria asetzeari zaila da. Ikusleek begiratzea nahi nuen, baina nola? Gailu elektronikoei begira goaz denok. Horregatik, irudiak proposatzen dizkiet ikusleei, bakoitzak nahi duen irakurketa egin dezala. bederatzi hilabeteko prozesua izan da eta lanak bide asko hartu ditu.

Hutsetik sortzen dena oso nekoso da.

Diziplina ugari uztartu duzu, sinbolismoz betetako mugimenduak tarteko.

Ez dakit nire dantza edo antzerkia den... Gorputzak berebiziko garrantzia du niretzat. Gorputza dut abiapuntua, baina ez dut katalogatu nahi, proposamen eszenikoa dela esango nuke. Jendeak erabaki dezala zer den. Dantza munduan oso lerro markatua nuen baina hortik ere alde egin nahi nuen. Aldaketak maite ditut. ■



XXVII. ESKOLA TXIKIEN FESTA



Ekainak 8
Bidania-Goiatz

10:30: Harrera ekitaldia

Jarraian: Kross txikiak

Ondoren: Ekintza ezberdinak

- 0-6 urte: tailerrak eta puzgarriak
- 7-12 urte: jolasak

13:30: Bazkaria

15:00-18:00: Puzgarriak

15:30-17:30: Tailerrak eta bideo emanaldiak

16:00: Pirritx, Porrotx eta Mari Motots, BIZIPOZA

18:00: Boleto zozketak

Egun guztian zehar **Skandalue Elektrotxaranga**



ZATOZTE **OSPAZERA** **!!!**
ONDO PASATZERA



**Informazio
guztia:**



<http://txinkorta2014.blogspot.com.es>



Haur eta Gazte Literatura

Bi begi?
Lucie Félix

Irudiak: Lucie Félix.
Itzulpena: Joxemari Sestorain.
Denon artean, 2013

Jolasteko proposamena

LITERATURAREN KONTZEPZIOA gero eta irekiagoa da gaur egun. Istorioak kontatzen jolasetara, elementu ugariren konbinaketara, formatu eta generoen ugaltzera, eta abarrera pasa gara. Batzuetan liburua objektu moduan nahiko ongi definituta dagoelako onar dezakegu zer den, baina inork esan al dezake liburu bat jostailua ere badenik?

Bi begi?, Denon artean etxeak eskaintzen digun liburu hau, jostailua ere bada, edo jolasteko proposamen bat. Izenburutik bertatik egiten zaigu proposamena; aizu, irakurle maitea, esango al didazu hor ikusten duzun hori bi begi diren... edo zure usteak erdiak baino gehiago diren ustel?

“Zortzi irudi urdin marraztu ditut,” dio egileak ipuinaren hasieran eta horixe bera ageri zaigu orrian. Ondoren “paperezko orria zulatu...” eta horixe egin du orrian, zortzi zulo aurreko irudien antzera. Kontua da hurrengo orrian, zuloen azpitik irudien zatitxo batzuk ikustean, “Eta euria ari du” esaten zaigula; izan ere, euri tanten efektua lortu du egileak.

Ondorengo orrietan nenufar batzuk eta urmaela irudikatuko zaigu hainbat elementu, irudi eta zuloren bidez. Eta urmalean “Hara! Begira dauzkatz bi begi! Bi begi?” irakur eta ikus dezakegu. Oraingo honetan ere, egileak irakurlearen espektatibekin jolastuz, begi horiek igel arrautzak direla ikusiko dugu.

Hortik aurrera arrautza igel bilakatzeko prozesuaren lekuko izango gara.

Eta, halako batean, liburuan eten bat gertatzen da, eta hasierako prozesuaren antzekoa abiaraziz, beste errealitate bat ikusiko dugu, irudiak, zuloak, espektatibak... eta amaieran hontza ageri zaigu “Hontza dugu, bere begi argiekin, guri zelatan, gau ilunean...” eta hontzaren irudian nor ageri eta hasierako igela! “Kontuz igeltxo! Hontz zelatariak jan zaitzake erraz!”.

Ipuinak, edo jolas liburuak, ezin amaiera txarrik izan; eta “Uf, salbatu naiz! Gure igeltxo gorde-gordeta dago, hontza da hegatu eta nire ipuina bukatu!”.

Komentario hau irakurri duen edonork ikus dezakeen bezala haur txikiekin jolasteko liburuak dugu Denon artean argitaletxearen lan hau. Espero duguna, sorpresa, irudi eta zuloen bidezko sorkuntza berriak; horiek guztiak hari mehe batez loturik ageri zaizkigu, igela eta hontzaren aurkikuntzak lotzen duena.

Norbaitek esan dezake literatura aldetik ez dagoela figurarik, elementu literarioak, kontakizuna apalegia dela... eta arrazoia izan dezake; garbi dago liburu honen helburu nagusia ez dela idazkera edo narrazioa, kontakizun sinplearen bidez irakurlearekin jolastea baino; honen espektatibak, irudimena, jolasteko grina erabiliz une atsegina igarotzea baizik. ■

Xabier Etxaniz Erle



ogiaren egia

Zatoz eta ezagutu garai batean egiten ziren ogiak, lehengo osagai eta teknikekin

Galparsoro OKINDEGIA

Antzinako ogiaren kabia bihurtu baitugu denda zahar berria

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

SaiazGetaria

H o t e l a

Roke Deuna, 25 • GETARIA

www.siazgetaria.com • Tel.: 943 140 143

Pucciniren *Turandot*. Nafarroako Orkestra Sinfonikoa.

Zuzendaria: John Mauceri. **Bilboko Operaren Abesbatza.** **Zuzendaria:** Boris Dujin. **Leioa Kantika Korala.** **Zuzendaria:** Basilio Astúlez. **Bakarlariak:** Martina Serafin (sopranoa), Marcello Giordani (tenorea), Davinia Rodríguez (sopranoa). **Eszena Zuzendaria:** Nuria Espert. **Eszenografia:** Ezio Frigerio. **Lekua:** Euskalduna Jauregia. **Data:** maiatzaren 17a.

Titulu ederra, harrera hotza

IRITSI DA OLBEren denboraldiaren azkeneko txanpa, eta, behar den bezala, titulu kuttunenetako batekin. Izan ere, *Turandot* opera hogeita hiru aldiz antzeztu da OLBEren historian, hain da erakargarria Puccini-ren obra xarmant hau. Aurtengo azken opera izateaz gain, maiatzaren 17ko saioa elkarteak antolatutako 900.a zen. Beraz, parada honek distira eta arrandia merezi zuen, eta publikoak sutsuki txalotzea ere bai. Baina ez. Ongi garatu zen emanaldia, puntu azpimarragarriak izan ziren, bai, baina hortik ez ginen atera. Eta publikoaren hoztasuna nabaria izan zen.

Puccini-ren fabula eder hau 1926. urtean estreinatu zen, Milango Scala antzokian, Arturo Toscanini-ren batutapean, eta Miguel Fleta tenore ospetsua protagonistaren rolean. Konpositorea obra honekin lanean ari zenean hil zen, beraz ezin izan zuen opera bukatu, eta Franco Alfanok eman zion amaiera hasitako harribitxiari.

Obra zaila da. Adibidez, *Turandot* oso konplikatu da sopranoarentzat. Alde batetik agudo ikaragarriak exijitzen ditu, eta, bestetik, ikutu wagnertarrak dituen paper hau ez da oso erosoa interpretatzeko. Gauza bera esan daiteke gizonezko protagonistari buruz. Zailtasun bokal apartak ditu, eta gutxitan elkartzen dira beharrezko trebezia haiek gainditzeko eta naturaltasuna interpretatzerakoan.

Aldi honetan Martina Serafin sopranoa ongi aritu zen, ahots sendoa erakutsiz, baina, badakizue nola-koa izaten den taula gaineko “misterioa”, ez zen publikoarengana iritsi. Motz geratu zen emozioak transmititzerakoan, eta hori ez da barkatzen. Marcello Giordani erdipurdi hasi zen, aitortu behar da, baina saioa aurrera joan ahala, hoberantz egin zuen, eta “Nessun dorma” hiperfamatua salbatu egin zuen azkeneko sobregudoa txukun emanez.

Ahots polit-polita eta gustu zinez ona eskaini zituen Davinia Rodríguez sopranoak. Eta publikoak saritu egin zituen nolakotasun horiek. Beharbada, abeslari txalotuena izan zen.

Emanaldiaren puntu indartsuak? Abesbatzen aktuzioak, Bilboko Operaren Abesbatzarena eta, batez ere Leioa Kantika Koralararena, beti bezala, puntu-puntu Basilio Astúlezen zuzendaritzapean. Eta, dudarik gabe, Ezio Frigerio-ren eszenografia, irudimentsu eta onirikoa, eta Nuria Espert-en eszena zuzendaritza. Pertsonaiak, taldeak, ezin hobeki mugitu ziren taula gainean, oso eszena plastikoak lortuz.

Beraz, saio atsegina, baina txalo gutxi. Hurrengo denboraldiaren zain geratzen gara. ■

Montserrrat Auzmendi



Bakailoa

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

HILOBI ----- TXIROA, BEHARTSUA	↓	PERTSONAIA- REN IZENA ----- OINEKO HATZ	↓	MASTA ----- ENERGIA	↓	IZOTZEZKO ETXE	↓	ERABAT BETE ----- INFORMAZIO GENETIKOA DUENA	↓	PLATER ----- PERTSONAIA- REN ABIZENA	↓	JANZIA ----- MARRAZKI	↓
↖		↓		↓		ERREKIN ----- SILABA HINDUISTA	→	↓		↓		↓	
BIZKAIKO ERAKUSTA- ZOKA ----- AJE	→			GOLDEAZ LANTZEN DUENA ----- ROENTGEN	→	↓							
↖				↓					HITZARMEN ----- 105 ERROMATAR ZENBAKIZ	→			
IDIEI ATZERA EGIN DEZA- TEN ESATEN ZAIEN HITZA ----- ZENTZUGABE	→			DANI BLANCO				↖		LETRA IZENA ----- MEHATXU	→		
↖	↓							↖		SALBU ----- NAHASTE	→	↓	
UKATZEKO HITZA ----- ZINTZO	→		OILOEI DEITZEKO ERABILTZEN DEN HITZA					↖				OXIGENOA ----- KAIKU, BABO	→
↖		FOSFOROA ----- EGOKI, ERARA	→					↖	EZ ARRA ----- GELDI!, ALTO!	→		↓	
GUHAUR ----- EREDU	→	↓	ONOMATO- PEIA ----- SARRERA	↓	ZENDU ----- EMAKUME IZENA	↓	ERRUSIAKO ENPERADORE ----- JUSTU, NEURRIZ	→	↓				LO EGITEKO ALTZAIRU -----
↖			↓		↓		↓			GORA JOAN ----- URREAREN SINBOLOA	→		↓
PERTSO- NAIAREN JAIO TERRIA ----- HERRI NAFARRA	→									↓	EUSKAL HERRIA ----- AZKEN LETRA	→	
↖						ARROPA- GARBITZAILE	→				↓		

HARRIETT PETTIFORE BRIMS

	H	A	H	I	A	P	S
P	O	B	E	A	A	O	I
	B	E	G	O	E	L	I
B	I	H	A	M	I	T	U
		A			C	V	D
E	S	T			E	Z	I
	E	Z			O	R	E
O	N	P				E	M
	G	E	U	Z	H	T	S
J	A	R	A	I	B	E	I
	B	A	R	T	Z	E	L
L	E	Z	A	F	T	A	I

*Kritikoari gorroto. Mahai-ingurua***Hizlariak:** Agus Perez eta Jaime Valverde. **Moderatzailea:** Karlos del Olmo.**Irakurketa dramatizatua:** *Piztu gabeko zigarroak*, Xabier Lopez Askasibar.**Aktoreak:** Maite Arrese eta Mikel Martinez.**Non:** Koldo Mitxelena kulturunea, Donostia. **Noiz:** maiatzaren 13a.

Antzerki kritikariaren azalean

KRITIKOARI GORROTO. Hala zuen izena Euskal Herriko Antzerkizale Elkarteak (EHAZE) Esperientziak jardunaldiaren baitan antolatutako mahai-inguruak. Bertan izan ziren, gorroto horren jomugan eta mikrofonoaren parean, egun antzerki kritika euskaraz egiten duten kazetari bakarrak: Agus Perez (*Berria*) eta Jaime Valverde (*Gara*). Hori bai, Karlos del Olmo moderatzaileak argitu zuenez, “maitasuna da gorroto guztien abiapuntua”.

Agus Perez *Euskaldunon Egunkaria* sortzearekin batera hasi zen antzerki kritikak idazten, eta bolada luzean euskarazko kritikari bakarra izan da. Epailearena baino, kritikariari laguntzailearen lana dagokiola argitu zuen. Jaime Valverde aldiz, hasiberria da, zortzi antzerki kritika soilik argitaratu baititu. Bere hitzetan, kritika ezinbestekoa da, “on egiten duen kaltea”.

Hizlariak eta moderatzaileak aitortu zuten, txikia da euskal antzerki sistema, eta ia denek eza gutzen dute elkar. Hori dela eta, Perezek konpainia izaten du gogoa kritikak egiten dituenean, euskalduna denean batez ere. “Antzezlanak prestatu dutenek merezi dute kanpoko irakurketa bat”. Bestalde, irakurleari begira, “irakurgarria” den testu bat idaztea izaten du helburu. Valverderen iruzkinak aldiz, funtzio pedagogikoa dute. “Irakurleari antzezlanak gustatuko zaion edo ez adierazten saiatzen naiz”.

Biek ala biek antzerkia ikusi eta berehala idazteko ohitura dute, egunean bertan edota hurrengo goizean bestela. Hala ere, zenbat eta denbora gehiago igaro, orduan eta hobeto barneratzen duela antzezlanak nabaritu du Valverdek. “Beran-



LANDER ARRETxea

duago idatzi ditudan kritikak izan dira sentsazio onenak eman dizkidatenak”.

Perezek dokumentazio lan handia egin behar izaten duela aitortu zuen: “Lehen nire balizko jakiturian bilatzen nuen informazioa, orain internetek asko erraztu du lan hori”. Adituekin hitz egitea ere atsegin du, euren iritzia kontuan hartzeko. Valverderi arrebak laguntzen dio testuak errazago egiten, mundu akademikotik datorrenez, esaldi luze eta korapilotsuak idazteko joera baitu.

Hizlarien azalpenek kritikariaren lan “bakartia” ulertzen lagundu zien eserlekuetan eroso jarritako aktore eta antzerkizaleei, baina ez hizlarien azalpenek bakarrik. Izan ere, ariketa bitxia proposatu zuen Karlos Del Olmok: irakurketa dramatizatua ikusi ostean, ikusleek horren kritika egin behar izatea; ikusleak kritikoren azalean jartzea, alegia.

Xabier Lopez Askasibarren *Piztu gabeko zigarroak* antzerki laburra

izen zen aukeratutako testua, Edipo eta Yocastaren mito klasikoa gaur egunera ekartzen duena. Maite Arrese eta Mikel Martinez aktoreek euren ahotsarekin gorpuztu zuten antzezlanak, jatorrizkoan bi bazarriketa paralelo direnak testu bakaurrean uztartuta.

Irakurketa amaitzean, isiltasunean murgildu zen aretoa, moderatzaileak xaxatuta zenbait kritikari sena piztu zitzaion arte. Gehientsuenek jatorrizko testua txalotu eta irakurketaren gehiegizko abiadurari erreparatu zioten, eta aktoreek ere izan zuten euren proposamena defendatzeko aukera. Amaitzeko, eztabaida horietan murgilduta zirela, kritikoaren lanari buruzko esaldi borobilena bota zuen Ramon Agirre aktoreak: “Kritikoari, egurra eman behar duenean ere, antzerkia maite duela nabaritu behar zaio”. ■

**Lander
Arretxea
Bereziartua**



Garona itxia uztea edo berriro zabaltzea, biak kezka iturri

GARONA itxi zen garai-ko ospakizunak urruti daude. Lasaitua hartu genuen gehienok, zentral nuklearrak ahazten has gintezkeelakoan.

Orduko hartan, ez nuen inon irakurri itxi ondoren zentrala desmuntatzeko plana. Frantzian, eta energia nuklearrak pisu handia duen Europako beste estatu batzuetan, hainbat zentral ixteko asmoa iragartzearekin batera desmuntatzeari buruzko zalantzak azaleratu ziren, baita ez-ezagutza ere; orain arte ez baita zentral nuklearririk desmuntatu osorik. Eman den antzeko aurrekari bakarrean, zentralako hainbat atal desmuntatu ondoren material erradioaktiboaren edukiontzia eta haren inguru osoa lurrez estali eta hainbat mende irauteko moduko mendi bilakatu nahi baita. Hori bai, denbora horretan guztian inork hurbiltzerik izango ez duen mendia.

Endesa Garona irekitzearen alde azaldu da, eta laster jakingo dugu Iberdrolaren iritzia, ziurrenik irekitzearen aldekoa ere bai. Espainiako Gobernuak urte hasieran egindako arautegi aldaketa erabiliko da aitzakia gisa. Inon ez dugu irakurriko zer arazo dakarren zentral nuklearra ixteak, ez eta dirutza eskerga xahutu daitekeela itxieraren ondorengo arazo larriak konpontzen, ez eta ere askoz merkeagoa dela behar diren inbertsioak egin eta aurrera jarraitzea.

Hamar urterako zabalduko digute berriro Garona, eta hamar urte horietan Fukushima erradioaktibitateari aurre egiteko moduez egun dakiguna baino gehiago ikasiko dugulakoan nago. Halaber, bitarte horretan eskarmen-
tu handiagoa pilatuko da Frantzian, zentralak desmuntatzearen alorrean.

Ez naiz energia nuklearraren aldekoa eta une honetan nire desioa Garona ahalik eta lasterren desagertzea da, baina une honetan itxiz gero Garona ia betiko gure artean izango da, eta agian hamar urte barru itxiz lehenago desagertuko da. Bihoitzez nahi dut Garona ixtea, baina zein da horretarako unerik egokiena? ■



DANI BLANCO

Ezustea Lekeitioko Lumentza kobazuloan

Ustekabea, bi bisonteren eta zaldi baten buruaren margoa aurkitu dituzte Lumentza koban. Diego Garate arkeologoak *Elburj* aldizkarian esan duenez, "Joxe Miel Barandiaranek 1926an induskatu zuen, eta gerora ere jende pila bat pasa da handik. Baina ez dira ikusten errazak; eskala oso handia da, eta erliebera egokituta daude, gainea idatzia-eta dituzte... ez da harriztekoa oharkabea geratzea".

ttiki.com/65152
(Euskaraz)

Japoniako enpresa batek publizitatea egin nahi du ilargian

Otsuka izeneko enpresa japoniarra 2015eko urrian bere produktu baten kilo bat hauts sartu eta ilargira bidaltzeko asmoa du. Horrela, datorren hamarkadan ilargiratu diren astronautek indarrak berreskuratzeke zer edana izango dute. Eta horretarako 500.000 dolar ordaintzeko prest daude.

ttiki.com/65153
(Frantsesez)

Zikloiak poloetarantz migratzen ari dira

Azken 30 urteetan, ipar hemisferioan hamarkadako 53 kilometro iparrera jo dute zikloiek; hego hemisferioan, 61 kilometro hegora. Ekuatore inguruko herrialdeetan lasaigo lo egin dezakete, zikloiei dagokienez behintzat, baina gainerakook badugu kezkatzeko beste arrazoi bat.

ttiki.com/65154
(Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

ideia batetik errealitatera

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Basoetako artxiboak

ITALIAN NEMI, Galian Luc, Galizian Lugo eta Nemetobriga... Amaierarik ez du munduko baso sakratuen zerrendak. Geurean ere izango ziren, bada! Basoetan azokak, jaiak, batzarrak, sakrifizioak... zer ez zen egingo garai batean. Basoak, eta zuhaitzak, etengabe berritzearen gaitasuna, eta zeruak, lurra eta gure espiritualtasuna batzen ditu.


Konkistatzaileek mendeen hartutako herri bat zapaldu eta oinkatu nahi zutenean, haren baso eta zuhaitz sakratuak eraisten zituzten. Lucanok dioenez, Zesarrek, lehen mendeen, galiarren baso sakratuetako bat suntsitu zuen, erromatarren ustetan paganoak ziren gurtzak ezeztatzeko. Zerua-
ren eta lurraren arteko lotura horren faltak menhirren kultura sortu zuela dioenik bada. Geurean Gernika dugu lekuko.

Hemen zuhaitzak begirune handiz hartu izan dira. Erromatarren garaiko Akitania aldeko hilarrietan “Arixo deo”, “Artehe deo”, “Fago deo” eta “Leheren deo” (haritz, arte, pago eta ler jainko) eskaintzak azaltzen omen dira.

Gure ekialdeko mugako Bigorra eskualdean ere pagoa gurtzen zutelako arrastorak daude, lauburuekin batera. Zuhaitz gurtza zahar hori, goseari aurre egiteko, haien fruituei lotua egongo da, inondik ere: pagotxak, ezkurak eta pinaziak. Pagoari lotutakoaz, adibidez, Olivier de Marliavek halaxe dio.

Manuel Lekuona idazle eta apaizak esaera hau jaso zuen: “Lizarra ez da bedeinkatu behar, berez da bedeinkatua”. Beste apaiz batek, R. M. Azkuek, zuhaitzei zor zitzaienten begirunea ederki adierazten duen esaera jaso zuen. Zuhaitz bat eraitsi behar zuen basomutil egurgileak honela esaten omen zion: “Guk botako zaitugu eta barkatu iguzu”.

Apaiz horien sekta, zuhaitz eta baso sakratuen zaindarien beldur izan da. Tokian tokiko jakinduria-



JAVIER PÉREZ-CC BY SA

ren jagole ziren xamanak, aztiak, sorginak... ixilpean erakusten zituzten nekazaritzaren egutegiak, astronomia, gorputzerako eta arimarako sendabelarrak eta abar. Sektaren izua hedatzeko oztopo. Basoak suntsituz jakintsu haien “artxiboak” desagertzen ziren. Gero, gurutzeak jarrarazi zituzten basoen gailurretako mendi tontorretan.

Eskerrak oraindik ere basorik badugun. Octavio Pazek, adibidez, basoan ibiltzea eta alaitasun intelektuala paretzen zituen. ■



Hostazuriaren koloreak

HOSTAZURIA (*Sorbus aria*) gure lurretako genero garrantzitsu batekoa da, Sorbustarrak. Zuritik asko du zuhaitz honek: hostopeko barban sarria eta lore multzo ikusgarriak. Gero gorrirako bideak ere hartzen ditu: loreak pikor ale gorri-gorriak emango ditu, txoriak erakarri eta fruitua jenez haziak barreia ditzaten. Zura ere zuri eta gorri artekoa du. Batzuen zuriagoa, gorritzagoa besteena. Denena ona, ebanista zurgin eta arotzen gutizia. Gaur egun ale gutxi batzuk besterik ez dira gertzen bertakoak, naturalak. Lorategi eta baratzeetan gehiago landatzen ari dira, ikusgarri. ■



JAKOBA ERREKONDO

Betaurreko ilunak ez ziren eguzkiperako asmatu

RUBELL'S ANTIQUES



WELCOME IMAGES

Ezkerrean, Foster Granten iragarkia; AEBetako enpresa hori izan zen 1929an eguzkitako betaurrekoak publiko zabalarentzat merkaturatzen lehena. Goian, James Aysoughen XVIII. mendeko betaurreko urdinuak.

TXINA, XII. MENDEA. Kuartzozko kristalak kearen bidez iluntzeko teknologia garatu zuten eta, hala, lehen betaurreko tindatuak asmatu zituzten. Baina lehen “eguzkitako” horien helburua ez zen ikusmena babestea, betaurrekoak janzten zituenaren aurpegi adierazmena ahal zen neurrian ezkatzea baizik. Izan ere, betaurreko belzkarak erabiltzen lehenak Erdi Aroko Txinako epaileak izan ziren. Betaurreko horien bidez auzian nahasitakoek azken epaiaren zantzuak garaia baino lehen izan zituzten saihestu nahi zuten. Epaileari poker aurpegiari eusten laguntzen ziotela, alegia; arrazoi beragatik, gaur egun, zenbait poker jokalarik nahiago dute eguzkitako betaurrekoekin aritu.

Beraz, betaurreko tindatuak ikusmen arazoak konpontzeko antiojoak baino mende bat lehenago asmatu zituzten. Alessandro della Spina fraide veneziarra izan zen XIII. mendean betaurreko neurtuak asmatu zituen. Asmakizunaren monopolioa Veneziak izan zuen urte luzez, baina, azkenean, 1430eko hamarkadan, betaurreko neurtuak Txinara iritsi ziren. Eta kuartzozko kristalekin egin bezala, txinatarrek Italiatik etorritako leiur berritzaile horiek ere ketu zituzten, ikusmen arazoak zituzten epaileen mesederako.

1752an, James Ayscough optikari eta diseinatzaile ingelesa urdinez

eta berdez tindatutako lenteekin esperimentatzen hasi zen. Baina haren helburua ere ez zen begiak eguzki izpietatik babestea; koloretako leiur tindatuen bidez zenbait ikusmen arazo hobetu zitezkeela uste zuen.

XIX. mendearen amaieratik XX. mende hasierara, eguzkitako betaurrekoen erabiltzaile nagusiak sifilitikoak izan ziren; zehazki, sifilitiko aberatsak, produktua oso garestia baitzen. Sifiliaren sintometako bat argiarekiko sentiberatasuna da, eta beraz, gaixotasun benereok bultzatuta eman zitzairen betaurreko tindatuei egun duten erabilera nagusia; ikusmena gehiegizko argitik babestea. Jakina, eguzki izpien ziztada begietan nozitzeko ez da nahitaezkoa sifiliak jota egotea, eta eliteak, betaurrekoen prezioa ordaintzeko aukera zuten bakanak, eguzkitakoak erabiltzen hasi ziren.

Eguzkitako betaurrekoen erabilera 1929an hasi zen demokratizatzen. Sam Foster buru zuen Foster Grant enpresak eguzkitakoak masiboki ekoizteari eta banatzeari ekin zion Atlantic Cityn, eta horrek prezioak nabarmen jaistearen eragin zuen. Handik aurrera ez zen beharrezkoa izango aberatsa, sifiliduna edo epaile txinatarra izatea eguzkitakoak eramateko. ■



Arrastoak

Bareak, arma kimikoen aurkako teknologia

LEHEN MUNDU GERRAN arma guztiek, kimikoek barne, garapen izugarria izan zuten: negar gasa, ziape gasa, fosgenoa... Horien aurkako babes bakarra gas maskarak ziren, baina denbora guztian jantzita eramatea ezinezkoa zenez, AEBetako armadak “gas toxikoak eta eragile kimikoak garaiz detektatzeko gailu” baten beharra zegoela erabaki zuen.

Orduan, Paul Bartsch (1671-1960) malakologoak bareak aztertu zituen eta gas kaltegarriak gizakiek baino askoz lehenago atzematen zituztela ikusi zuen. Horrek tarte handiagoa emango zien soldaduei maskarak jartzeko. Horrenbestez, 1918an, Lehen Mundu Gerrako azken bost hilabeteetan, AEBetako osteeek gasen aurkako “gailu” berria eraman zuten gudu-zelaira: barruan barea eta esponja hezea zituen kartoizko kaxa. ■



OBSCURIO

AEBetako soldadua gas maskara jarrita, 1919an.



BAIETZ 1.000 EROSLE LORTU!

DVD BERRIA!

🌐 Ene kantak ekimena DVDa prestatzen ari da, Euskalerria Irratia diruz laguntzeko xedearekin.

🌐 Haurrentzako 20 kanta berri eta beste horrenbeste bideoklip grabatu ditugu jada, hainbat lagunekin:

Fermin **Muguruza**, Ruper **Ordorika**, Imanol Ubeda **Bide Ertzean**, Mikel **Urdangarin**, Fran eta Zuriñe **Hesian**, El **Drogas**, **Kutxi** Romero, Manolo **Garcia**...

🌐 DVDa dendetan salgai jarri ahal izateko, laguntza behar dugu. Fisikoki jaso aurretik DVDa erosiko diguten 1.000 lagun behar ditugu.

DVD-A EROSTEKO: VERKAMI.COM
vkm.is/emanbideaeuskalerriairratia



euskalerriairratia
.com

Helburua beteta

Erabakitze eskubidearen aldeko giza kate erraldoia osatzeko 60.000 lagunek eman dute izena jadanik. Baina helburua aurrez bete dutela dio Gure Esku Dagok: herrietan sorturiko ekimenek ideia askotako jende andana biltzea lortu dute.

| URKO APAOLAZA AVILA |

DURANGO ETA IRUÑEA elkartuko dituen giza katea egiteko atzera kontaketa hasi da dagoeneko. Gure Esku Dagoko antolatzaileek azken xehetasunak eta informazioa eman zituzten joan den astean. Agian, daturik esanguratsuenak honakoa da: ekainaren 8an 123 kilometroak betetzeko adina jendek izena eman du. Ibilbidea osatzeko 50.000 lagunetik gora behar direla kalkulatu dute sustatzaileek —kilometro bakoitzeko 400-500 pertsona—, bada kopuru hori aisa gainditu da: 60.000k eman dute izena.

Baina jendetza biltzea bezain garrantzitsutzat jo dute “hausturarik gabeko kate sendoa” osatzea. “Berriz ere eskatzen dugu bakoitza egokitu zaion tokira joateko, hori izango baita arrakastaren gakoa”. Horretarako, hainbat gomendio dakartzan liburuxka argitaratu dute. Metroa aurretik erosi eta ahal den neurrian autobusez bidaiatzeko eskatu dute.

700 autobus bete dira, kasu batzuetan aurreikuspenak erabat gaindituta: “31 autobus beteta eta

beste 10 betetzeko bidean, izugarria izango da!” zioen Getxo eta Algortako Gure Esku Dagok txio bidez. “Lugarren busa betetzeko zorian, inoiz ikusi gabea, ezin duzu kale egin!”. Donostiako Amara Berriko beste erabiltzaile batek. Autobusentzako hiru aparkaleku erraldoi atonduko dituzte Kanpazar, Lizarrusti eta Deskargan bilduko direnentzat.

Giza katea Durangotik Iruñerako norabidean ezkerreko aldean egingo da eta toki askotan errepidea ez da autoentzat moztuta egongo. Horregatik segurtasun arauak errespetatzeko eskatu dute.

2.500 lagun boluntario arduratuko dira giza katea antolatzeaz, kilometro bakoitzeko hamar lagun —arduraduna, bost laguntzaile eta informazio puntuan beste lau—.

10:00ak inguruan hasiko da jendea biltzen eta giza katea prestatuko da “modu animatu eta ordenatuan”. 12:00etan kateari hasiera emateko soinu ozen bat entzungo da, izan txalaparta, adar, kanpai edo beste soinu-

ren bat. Amaitu ondoren egun osoko jaialdiak antolatu dituzte Durangon, Bergaran, Etxarri Aranzatzen, Iruñean eta Lazkaon. Azkeneko honetan, esaterako, 10.000 lagun bildu litezkeela uste da eta 1.000 lagunentzako bazkaria jarriko dute.

Desberdinen arteko bilgune

Ekainaren 8ko data hurbildu ahala ekintzak ugaritu dira. Asteburu honetan muga herrietan giza kate “ttipiak” osatu dituzte. “Ekimenak balioko du baldin eta asmatzen bada eguneroko milaka muga desberdin, ikusgarri eta ikusezinak, gainditzin” zioen Amets Arzallus bertsolariak Kazeta.info atarian.

Ipar Euskal Herriko Gure Esku Dagoren arduradunek nabarmendu dute lurralde horretan elkarlanerako esperientzia ugari izan direla azken urteetan eta horiekiko errespetuz ari direla lanean. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako herritarrak giza katearen 111 eta 112 kilometroetan bilduko dira.

Urtebeteko ibilbidea



2013-06-08. Ficoba
Giza katearen ekimena publikoki aurkeztu zuten Irungo Ficoban.

2013-09-04. Guardia Zibila zelatan
ANC eta Gure Esku Dago ikertzen ari zela esan zuen Guardia Zibila, irailaren 11ko *Via Catalan*aren bezperan.

2014-01-18. Eskutik Eskura
Herriz herri konpromisoak lortzeko mugimendua martxan.



2014-03-30. Casilla
Milaka lagun bildu ziren dinamikak “bidearen erdia” egina zuen egunean. Ordurako 22.000 lagun babesa jasota.

2014-04-23. Ekintzak azkartzen
Angel Oiarbide bozerra-mailearen esanetan 120 lan-talde zeuden osatuta herrietan.

2014-04-29. Ideia ezberdinetako politikariak hizketan
Floren Aoz, Gemma Zabaleta eta Juan Jose Ibarretxe erabakitze

eskubideaz aritu ziren EHUko Paraninfoan.

2014-05-06. Castell'sak Iruñean
Katalanek ekainaren 8an *castell*a egingo duten Europako zortzigarren hiriburua izango da Iruñea.





AMURRIOKO GURE ESKU DAGO

150 batzorde pasatxo sortu dira herrietan eta milaka lagunek hartu dute parte sustapen ekitaldietan. Irudian, Amurrio.

Desberdinen arteko bilgune izaten ari da Gure Esku Dago dinamika. Azpeitian eta Altsasun hainbat alderditakoak diren alkate ohi guztiek eman diote babesa; Oiartzunen ere 1975etik gaur arte udalean izan diren 50 zinegotzi bildu ziren argazki historiko batean, honako alderdietakoak: ezker abertzalea, PSE, EAJ, EA, Hamaikabat, Ezker Anitza, Aralar eta EH Bildu. Hamaika telebistako *Pausoan* telebista saioan Iñaki Zarraoa


Getxoko alkate ohiak honako hausnarketa egin zuen: “Gure Esku Dagok abantaila bat izango du: gehiago ezagutu dugu elkar. Hemen bizikidetzak konpondu behar dugula esaten dugu, bada ekimen honek ere egingo du bere lana horretan”.

Carlos Urquijoren parte-hartzea

Denak ez dira iritzi berekoak. Carlos Urquijo Espainiako Gobernuaren ordezkariarentzat erabakitzeke esku-

bidea “eufemismo” bat da, independentziaren aldarrikapena ezkututzen duena. Gipuzkoako Aldundiak egitasmoa diruz laguntzeko hartutako erabakia auzitara eraman du. Urquijoren ekarpen partikular horrek eta Etxarri Aranazko hiru lagunek Guardia Zibilaren aurrean deklaratu behar izanak independentziari buruzko erreferendumatik, oilo ipurdia jarri dio bati baino gehiagori.

Gure Esku Dagok behin baino gehiagotan azaldu du ez dela mugimendu independentista, eskubideez ari dela. Astekari honen azkeneko LARRUN zenbakian, Iñaki Lasagabaster EHUKo Administrazio Zuzenbideko katedradunak ezin hobeto deskribatzen du auzia: “Erabaki eskubideak ez du zerikusirik estatuen arteko itun batekin, autodeterminazioarekin gertatzen den bezala, demokraziaren ideia berarekin baizik. Hemen bizi garenek gure arteko bizikidetzak arautzeko gure arauak egin ezin baditugu, ezin esan dezakegu demokrazian bizi garenek”. ■



2014-05-16. Nafarroa
Erabakitzeke eskubideaz hausnarketa plazaratu zuten hainbat lagunek: “Zer izango da Nafarroa? Nafarrok nahi duguna. Ezin daitekeena da beste batzuek gure ordez erabakitzea”.

2014-05-18. Urbia
Herrietako ekitaldietan parte-hartze gero eta handiagoa. Urbian, esaterako, ehunka lagun izan ziren giza katean.

2014-05-21. Ordezkaririkirik.
123 enpresatako ordezkaririkirikaren babesa (ELA, LAB, ESK, EHNE, Hiru eta Eilas), giza katearen kilometro bakoitzeko bana.

2014-05-25. Gure Eskubidea spota
Euskal Herriko hiriburuetan, Bardeetan eta Berriozarren grabaturiko spot ofiziala sareratu zuten.



Ikus-entzunezko emanaldia zuzenean, eta gauean telebista saioa

GURE ESKU DAGO dinamikaren dimentsioa handitzen doa egunetik egunera. Jendetza bildu du herrietan egin diren ekitaldietan eta hainbat ideiatako sektoreak batzeko kapaz izan da. Ekimena duela urtebete jaio zenetik, ARGIAk gertutik jarraitu ditu eman dituen urratsak. Informazio osoa dakarren kanala ere atondu dugu webgunean.

Ekainaren 8a hurbildu ahala, egun horretan egingo den giza kate erraldioari nolako jarraipena egin aztertzen aritu da ARGIAko lantaldea. Hala, harremanetan jarri ginen lehendik kolaboratu izan duen sareko zenbait hedabideekin (Topatu, Info7 eta Ahotsa.info), aukera aproposa izan baitzitekeen elkarlanerako. Giza katearen ibilbidean jarduten diren euskarazko hainbat hedabide ere (*Goiena*, *Anboto*...) hasieratik prest agertu ziren euren ekarpena egiteko.

Apirilaren amaieran Gure Esku Dagok medioekin lehen bilkura egin zuen eta geroztik hedabideok eta beste batzuk (ikusitako beheko zerrenda) makina bat aldiz izan gara elkarrekin, amankomunean egindako lana sustatzeko.

Zer eskainiko dugu?

Elkarlanari ekin diogun hedabideok uste dugu gure komunitateentzat interes informatibo handia duen mobilizazioa izango dela ekainaren 8koa. Apustu berezia eta anbiziotsua egingo dugu kalitatezko jarraipena bermatzeko. Hau da egun horretan eskainiko duguna:

Hedabideekin elkarlana

Ahotsa, Aiaraldea, Anboto, ARGIA, Arrosa sare, Barren, Berria, Goiena, GoierriTB, Guaixe, Hamaika, Hitz, Hitzondo, Info7, Librea zuzenekoak, Naiz, Pil-Pil, Piztu, Tolosaldeko ataria, Tokikom, Topatu, 25 Geltokia



ARGIA harremanetan jarri zen lehendik kolaboratu izan duen sareko hedabideekin eta giza kateari jarraipen bateratua egiteko asmoa sendotuz joan da.

- Ikus-entzunezko saioa egingo dugu giza kateak iraun bitartean. Webguneetan *streaming* bidez zuzeneko irudiekin hornituko dugu eta irrati bidez ere entzungo da. Bertan jasoko ditugu errepideetan bizi den giroa eta jendearen iritziak, eta uneen uneko gertaeren berri ere emango dugu.
- Sare sozialetan jarraipen koordinatua hedabide guztion artean.
- Giza kate osoko argazkiak bilduko dituen mapa interaktiboa.
- Giza katearen 123 kilometroak dokumentatuko ditugu hainbat

formatutan (argazkiak, bideoak, eta audioak). Bai lurretik eta baita airetik ere hartutako irudiak izango dira.

- Gauean telebista saioa emitituko dugu egunak utzi duen onena laburbilduz.
- Denon artean grabaturiko irudiak baliatuz mobilizazioaren bideoa zabalduko dugu sarean.

ARGIAko kazetariak giza katean barrena

Ekainaren 8an, mobilizazio historikoaren nondik norakoak uneoro jakin nahi dutenek, ARGIAren webgunean informazio osoa izango dute: bideoak, *streaming*, argazkiak, analisiak, datuak...

Kazetariak giza katean barrena ibiliko dira, irudiak hartu eta informazio nahiz iritziak biltzen. Aurkezle, edizio eta koordinazio lanetan ere arituko dira ARGIAko kideak.

«Euskara azken orduko eginkizuna bada, ez da harritzekoa iragarkia kaskarra izatea»

Euskarazko zenbait iragarki traketsek atentzioa eman zioten unibertsitatean hasi orduko. Kezka hark publizitate elebiduna ikertzera eraman du; eta ikerketak New Yorkeko CUNY unibertsitatera. Bertatik, itsasoaren eta pantailaren beste aldetik, tesiaren nondik norakoen berri eman digu Estitxu Garaik.

| LANDER ARRETXE |

Euskarazko publizitatea ikertu nahi omen zenuen, baina azkenean, publizitate elebiduna ari zara ikertzen. Zer dela eta?

Aspalditik datorkit euskarazko publizitatearekiko interesa eta kezka. Orain arte ez du inork horren inguruko tesirik egin, eta masterra hasi nuenerako buruan nuen bide hori jorratzea. Joxerra Garziari aipatu nion, eta bere laguntzaz hasi nintzen ikergaia zehazten. Abiapuntu gisa honako hipotesia nuen: euskarazko publizitatea gaztelaniazkoaren itzulpena izaten dela gehienetan, eta hala, euskarazko aleek eragiteko gaitasuna galtzen dutela. Hipotesi horri erreparatuta ohartu nintzen nire ikergaia ez zela euskarazko publizitatea, elebiduna baizik. Izan ere, herrietan salbu, euskaraz egiten den publizitatea ia beti da elebiduna.

Bada ikerketarik euskaraz zenbat publizitate egiten den aztertzen duenik?

Tamalez ez dago halako ikerketarik. Nik datu batzuk badauzkat baina ez dira oso fidagarriak. Tesiaren lehenengo fasean, agentzietako publizistekin elkarriketak egin nituenean, euren datuak eskatu nizkien, baina hori da dudaren erreferentzia bakarra. Garrantzitsua litzateke halako ikerketa gauzatzea, baina horretarako baliabideak behar dira eta finantzabi-



“Zuzentasun linguistikoaren eta eraginkortasunaren artean badago borroka, eta uste dut publizitate ikuspegitik lehentasunezkoa eraginkortasuna dela”.

de egokiak. Tesi oso bat egin behar-kio litzateke horren inguruan.

Zu dena den, EAEko publizitatea ari zara aztertzen, ezta?

Hala da bai, EAEkoa ari naiz aztertzen, Euskal Herri osokoa ikertu

nahi banuen ere. Izan ere, egoera soziolinguistikoaz gain, euskararen estatusean eta legedian alde nabarmenak daude. EAEn erakunde publikoek publizitatea elebidun egin behar dute. Nafarroan bestelakoa da egoera da, hiru eremuen

afera dela eta. Iparraldean, aldiz, euskarak ez du ofizialtasunik, eta iragarkietan frantsesezko zatiak beste edozein hizkuntzari dagokionaren neurri eta tamaina bera izan behar du gutxienez, baita iragarlea enpresa pribatua bada ere. Jabetu nintzen publizitatean zatiketa administratibo horrek duen garrantziaz, eta erabaki nuen EAEtik hastea zela onena.

Jatorrizko hipotesia azaldu duzu, baina zein da ikerketaren muina eta helburua?

Tesiaren helburua ez da soilik frogatzea itzulpena gaizki egiten dela eta eraginkortasuna galtzen dela, baizik eta ikustea zeintzuk diren eragiten duten faktoreak, eta horren arabera, metodologia bat proposatzea baliagarri izango dena bi piezen baliokidetasuna aztertu eta euskarazkoaren eraginkortasuna neurtzeko. Ideala hasieratik sortze-prozesua elebiduna izatea litzateke, baina itzulpenera jo behar bada, behintzat prozedura hobetu daitekeela uste dut.

Hiru fasetan banatu dut ikerketa: lehenengoan elkarrizketa bidez hipotesia frogatzen saiatu nintzen, eta arrazoieta sakontzen; orain bigarren fasean eraginkortasunean eragina duten aldagaiak aztertu nahi ditut, eta esan bezala, neurtzeko modua proposatu; eta azken fasean hartzaile elebidunek nik aurretik zehaztutako alderdi horiek zein neurritan antzematen dituzten ikertuko dut.

Ez dago euskaraz behar bezain ondo idazten duen publizistarik?

Egia esan gutxi dira, baina arazoa hori baino sakonagoa da. Badaude erredaktoreak ikasketak euskaraz egin dituztenak baina ez direnak gai sentitzen argitaratuko den behin betiko bertsioa eurek emateko. Zuzentzaile edo itzultzaile batek lana berrikustea nahi dute. Zuzentasun linguistikoaren eta eraginkortasunaren artean ere badago borroka, eta uste dut publizitate ikuspegitik lehentasunezkoa eraginkortasuna dela. Iragarkiak xede-taldearengan nahi duen eragina lortu behar du beste edozeren gainetik. Hortaz, euskarazko publizitatea itzultzaileen esku egotean, zuzenta-



Euskal Herria Esnearen etiketatzearean aferaz: "Gezurra badirudi ere, euskara hutsez aritzeko trabak daude administrazioaren aldetik. Guri tokatu zitzaigun, lehenengo produktu masiboa izan ginelako etiketak euskara hutsez egin zituena, baina ea beste asko ere badatozen atzetik".

suna lehenesten da, zenbaitetan, gustagarritasunaren eta eraginkortasunaren kaltetan.

Itzultzaileen lan baldintzek ere izango dute eraginik...

Bai, noski. Itzultzaileen baldintzak ez dira aproposenak izaten; maiz ez dute informaziorik ez denborarik testuen eraginkortasuna behar beste lantzeko. Izan ere, publizitate itzulpenak bere berezitasunak ditu: ia-ia jatorrizkoa egin duenaren bide bera egin behar du itzultzaileak, eta horretarako publizitate ezagutzak beharrezko dira. Informazio asko bildu behar da, eta hori sakonki landu zure mezua egokia den edo

ez jakiteko. Gainera, jatorrizkoak ezartzen dizkion mugen barruan soilik mugi daiteke. Jatorrizkoa sortzea baino zailagoa da itzultzailearen lana; edo hobe esanda, itzul-sortzailearena.

Azken finean, prozedura bera da arazoa, eta hori aldatzea da zailena. Euskara azken orduko eginkizuna bada, eta ez bada hasieratik kontuan hartzen, ez da harritzekoa emaitza behar bezain ona ez izatea.

Negozio ikuspegitik, euskara eraginkorra eta baliagarria izan daitekeela aipatu duzu maiz.

Hala uste dut, baina hori ere tesitik kanpo geratzen da. Euskara balio

erantsia izan daiteke. Esaterako, jendeak uste duenaren kontra, uste dut zenbait testuingurutan euskarak modernotasuna iradokitzen duela, gazteen hizkuntza delako. Dena den, hori guztia frogatzeko dago. Hemen New Yorkeko ikerlariek erabiltzen dituzten metodologia esperimentalekin neur liteke, eta gustatuko litzaidake bide horiek noizbait miatzea.

Sarean publizitatea gero eta pertsonalizatuagoa egitea da joera. Aukera aproposa izan daiteke euskarazko publizitatea ugaltzea eta garatzeko?

Publizitate tradizionalan, telebistan adibidez, iragarkiak publiko estandar bati zuzenduta daude. Aldiz, sarean hartzaileak multzo txikiagotan banatzeak mezua bakoitzaren arabera doitzeko aukera eskaintzen du. Interneteko baliabideak neurri batean berriak dira oraindik, eta une aproposa da pertsonalizazio horretan hizkuntzek duten garrantzia aldarrikatzeko. Nire ustez, komunitate elebidun batean lan egiten baduzu, ezinbestekoa da edozein erakunderentzat planteamendu linguistikoa bat egitea, nahiz eta, horren ondoren, soilik hizkuntza bat erabiltzea erabaki. Trantsizio fase batean gaude oraindik sareari dagokionez, eta markei estrategia linguistikoen garrantzia helarazi behar diegu. Hein batean, komunikazio eta marketin aholkularia da ardura.

Tesiaren idazketan, publizitatearen alorrean maiz ingelesez erabiltzen diren hitzak euskaratu edo ez erabaki behar izan duzu.

Hori da hasieratik, ez zoratzeko, hartu behar izan dudana erabaki estrategikoetako bat. Badaude termino batzuk oso hedatuak daudenak, eta horien kontra borrokan ari zitea alferrikakoa da, 'marketing' kasu. Hautatu ditut hedatuak dau-

denak eta ingelesez mantendu ditut, eta besteak aldiz, euskarara ekarri. Tesiaren edukiaz gain, hori ere ekarpen bat izan daitekeela uste dut. Noski, ez naiz filologoa, baina publizista baten burutik hizkuntzari ekarpena egitea ere aberatsa izan daiteke. Lan gehigarria da, baina gaur egun, ingelesa ez den edozein hizkuntzatan ikertzen duen orok gauza bera egin behar du.

“Jatorrizkoa sortzea baino zailagoa da itzultzailearen lana; edo hobe esanda, itzultzailearena”

Euskal Herria Esnearen aholkulari ere izan zinen. Etiketak euskara hutsean idazteak zenbait traba eragin zizkizuen.

Denbora asko eskatzen zidanez, jada ez nago proiektu horretan, baina hasieran haiekin lanean aritu nintzen. Euskal Herri mailako proiektu bat osatzea erabaki genuen, baina apenas genuen dirurik publizitaterako. Aipatu nien bereizgarriak bilatu behar genituela balio erantsia lortzeko, eta horretarako tresna bat euskara izan zitekeela. Bagenekien Nafarroan edo Iparraldean arazoak izan genitzaizkeela, baina ez genuen inondik inora espero EAEn ere arazoak

“Jendeak uste duenaren kontra, zenbait testuingurutan euskarak modernotasuna iradokitzen du, gazteen hizkuntza delako”

izango genituenik. Kaikuk salaketa jarri zigun, besteak beste, etiketaren baliagarritasuna egiaztatzeko eskatuz. Gezurra badirudi ere, euskara hutsez aritzeko trabak daude administrazioaren aldetik. Guri tokatu zitzaigun, lehenengo produktu masiboa izan ginelako etiketak euskara hutsez egin zituena, baina ea beste asko ere badatozen atzetik. Errealitateak gaingintu behar du legedia, legearen zentzugabekeria agerian uzteko.

Bide batez, zorionak. Berriki Txio-tesia lehiaketa irabazi duzu. Zertan datza ekimenak?

Oso burutazio ona eta sortzailea iruditu zitzaidan. Gure tesia sei txiotan laburbiltzea zen eskatzen zitzaiguna. Bitxia izan da, ni publizista banaiz ere, zehaztasunaren saria irabazi dut, eta aldiz, originaltasunean biokimika ikasi zuen bat izan da garaile. Dena den, interesgarria euskal ikertzaileen komunitatea ikusarazi duela izan da; euskarazko produkzio zientifiko oparoaren berri eman du.

Eta tesia aurkeztu ostean, zer?

Abenduan aurkeztuko dut. Egia esan, etorkizunerako ikerlerro mordoa zabaldu zaizkit orain. Tesi batekin hasten zarenean dena ikertu nahi duzu, baina sakondu nahi bada, garrantzitsua da ikerlari mugatzea. Hori bai, behin amaituta, publizitate elebiduna arakatzen jarraitu nahi nuke.

Nire ustez, unibertsitateak eta gizarteak lotura izan behar dute, eta ikertzen denak ahal den neurrian erabilgarria izan behar du. Nire tesia ahal beste zabaldu nahi nuke, eta agentziei azaldu nire ondorioak zeintzuk izan diren.

Espero dut kontuan hartuko dutela eta izango duela nolabaiteko eragina ere. ■



Babeslea: IVAP

 HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA  euskadi.net	Enplegu Publikoa - Lan-eskaintzen harpidetza - Lan-poltsak (Eusko Jaurlaritzak) - Beste administrazioetako lan-eskaintzak - Toki administrazioetako idazkaritza, kontu-hartzailetza eta diruzaintza - Hautaketak	Prestakuntza - Administrazio orokorra - Toki Administrazioak - Foru aldundiak - Berarietako hizkuntza prestakuntza - EVETU - Prestakuntza jardueren homologazio prozedura	Euskara - Euskara ikasketak - Hizkuntza eskakizunak - Erabileren Planaren prestakuntza - Argitalpenak (euskara) - IZO - Itzulitzaile Zerbitzu Ofiziala
---	--	--	--

40.000 Coca-Cola poto bildu dituzte enpresari katalanez etiketatzeko eskatzeko

MAIATZAREN 31N, 40.000 Coca-Cola poto, *Etiquetas en català* leloa Bartzelonako Catalunya plazako zoruan idazteko. Plataforma per la Llengua gobernuz kanpoko erakundearen ekimena izan da. 1993an, erakundea sortu zenean, ekimen bera egin zuten eta 15.000 poto bildu zituzten. Gauzak asko aldatu ez diren seinale. Coca-Colak bere freskagarriak 200dik gora herrialdetan banatzen ditu eta katalan hiztun kopurua baino gutxiagoko komunitateei euren hizkuntzan etiketatutako produktuak saltzen dizkie.

Coca-Cola adibide bat baino ez da. Plataforma per la Llengua

emandako datuen arabera, Kellogg's, Bayer, Danone, Durex eta Nestlé enpresek Finlandian suedieraz etiketatzen dute, Belgikan frantsesez eta Suitzan alemanez. Herrialde horietan, hizkuntza horietako hiztun kopurua murriztagoa da katalan hiztun kopurua baino.

Katalunian, produktuen %90 ez dago katalanez etiketatuta. Legez, herritarrek eskubidea dute katalanez etiketatutako produktuak izateko eta enpresak eskaintzera derrigortuta daude. Hala ere, enpresek ez dute betetzen eta administrazioak ez du inolako isunik jarri.

PLATAFORMA PER LA LLENGUA



20.000 Coca-Cola poto lortu nahi zituzten, eta azkenean bikoitza lortu dute Plataforma per la Llengua elkarteak.

Bahea

Mirari Saizar, Berastegiko Hizkuntza zinegotziak Tolosaldeko atarian esanak:



T. ATARIA

"Euskaldunak gutxitzen bainoago, euskararen erabilpena gutxitzen ari den kezka sortu da herritarren artean eta udalean bertan. Beste hainbat herritan bezalaxe, urte gutxitan etxe asko egin dira eta jende asko etorri da hara bizitzera. Batzuek erakutsi dute interesa euskaraz aritzeko, baina beste batzuek ez.

Oro har, bai egon dela atzerapena, batik bat, guraso jendearen artean. Eta ez bakarrik gurasoen artean; geroz eta gehiago entzuten dugu haurrek ere elkarren artean geroz eta gehiago egiten dutela erdaraz. Hori adibidez duela 30 urte ez zen gertatzen. Eta horrek sortu du kezka; hain euskalduna den herri batean zergatik ari den gertatzen hori. Etorri bezala joango den joera ote den edota beste zerbaiten seinale ote den... Kezka hori herritarrei zabaltzeko premia sortu da guraso eta herritar batzuen artean".

TERMOMETROA • EKONOMIAREN TALAIAN

Gehien irabazten dutenek agintzen dute

GEZURRA DA politikariek eta gobernuek agintzen dutela eta egiten dituztela legeak. Gezurra da European hautatu berriek egingo dituztela legeak eta ezarriko dituztela politikak Europarako. Egiaz agintzen dutenak mundu osoan agintzen duten berak dira: botere taldeak, lobbyak eta halakoak. Soldata milioiunak dituzten horiek inposatzen dituzte politikak, gobernuak eta parlamentuak diren arren publikoki ezartzen dituztenak. Haien atzetik baina, betikoak daude: multinazionalak, enpresari handiak, bankuak, espekulatzailak eta inbertsio eta aseguru funts handiak.

Espainiako Estatuan esaterako, berriki ikusi dugu Mariano Rajoy presidentea enpresari nagusiek inguratuta. Eta Troika ere ikusi dugu Bilbon, Urkullu anfitrioi lanak egiten ari zela. Eurak sustatu dituzte lan eta pentsio erreformak, soldata politika murriztaileak eta neurri antisozialak. Eta zeintzuk dira? Espainiako

Estatuan 30 pertsona daude botere ekonomikoaren gailurrean, beraiek "aholkatzen" dituzte politikariak, eta soldatak ere ez dituzte nolanahikoak: Florentino Pérez, ACS enpresako jabea, 4,5 milioi euro; Emilio Botín, Banco Santanderreko presidentea, 3 milioi; Francisco González, BBVAko presidentea, 5,17 milioi; Jose Ignacio Sánchez Galán, Iberdrolako presidentea, 7,44 milioi; Antonio Brufau, Repsoleko presidentea, 5,16 milioi; Cesar Alierta, Telefónicako presidentea, 6,5 milioi. IBEX indizeko enpresen kontseilariak euren langileek baino 75 aldiz gehiago irabazten dute. Aurpegia behar da besteei soldatak murriztu eta politika antisozialak ezartzeko. Gehien irabazten duten horiek dira agintzen dutenak, ez unean uneko politikariak.



Juan Mari Arregi

% **60**

BIRZIKLAPENA



**KONPOSTATZE
PLANTA**



**TRATAMENDU
MEKANIKO
BIOLOGIKO
PLANTA**



**KUTSADURARIK
GABEKO
GORDETEGIA**



GIPUZKOA ZABORTEGIRIK GABE



Gipuzkoako Foru Aldundia

Gipuzkoa
BERRIA

Fralib: langileek kooperatiba bihurtu nagusiak itxitakoa

Unilever multinazionalak Frantziako lantoki bat itxi zuen Marseilla ondoan. 1.336 egun iraun duen borrokaren ostean, langileek lortu dute salbatzea kooperatiba sortzeko asmo bihurturik. XXI. mendeko krisitzarraren beste aurpegia ikusi da Proventzako Gémenos-en: langileek ugazaba behartu dute konponbide batera.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

GEHIENETAN BUKATZEN DA GAIZKI baina ez beti. Merkatu librean oinarritzen den ekonomiak ziklikoki ezagutzen dituen krisietako bakoitzak uzten ditu lanik gabe milaka edo milioika langile, soberan omen dauden lantokiak sakrifikaturik, hemen Arroako TS, hor Azpeitiako Corrugados lehen Ucin izana, aurretik Ibaizabal bazterreko Altos Hornos edo Urumeako Orbegozo. Inon ez dago idatzita, ordea, langileen derrigorrezko patua denik labanari zintzurra isilik eskaintzea.

Maiatzaren 27an berria zabaldu du *Politis* astekariak bere webgunean: “1.336 eguneko borrokaren buruan, Fralibeko langileek lortu dute Unilever multinazionalarekin ituna, enpresa kooperatiba moduan berriro abiaraztea baimendu behar diena”. Biharamunean obreroek batzarrean eman dute adostasuna eta Scop T.I kooperatibaren lehen urratsei ekin. *Bastamag* gunean Sophie Chappelkek titulatu du: “Fralibeko langileek Unilever erraldoiari irabazi diote”. Frantziako ezkerreko jende askorentzako albiste handia izan da besteren artean *Lipton* markako tea ekoizten zuen lantegi hau bizirik atxikitzea.

Sophie Chappelkek “*Fralib: des salaires créatifs en lutte contre une multinationale cupide*” kronikan kontatua du enpresaren historia. *Pastis* edari

gozoak famatu egindako Ricard konpainiarenak ziren *Eléphant* infusio marka eta Marseilla ondoko Gémenos herriko te fabrika. 1972an Unilever multinazionalak erosi zituen eta gero *Lipton* markakoekin elkartu enpresa berean, hori baizik ez da Fralib.

2001etik aurrera ekin zion jatorriak Holandan eta Britainia Handian dauzkan Unileverrek konpainiaren enpresa sarea berregituratzeari, benetan etekinak ematen dituzten atalak besteetatik bereizi eta urruntzen, komertziala Parisera, Europa osoko erosketen zentrala Suitzara, eta abar.

2010eko irailean korporazioak Gémenoseko te usina itxi egin zuen eta 182 langile kalean utzi, argudiatuz European taldearentzako tea egiten duten hiru lantegietan lehiakortasun gutxiena berak zuela. Orduan ekin zioten borrokari enplegatuek. CGT sindikatukoak ziren hautatutako ordezkariak. Eta hauek ibili dira gidari 1.336 egunetan.

Langileek, hasteko, demostratu zuten Unileverren argudioa ez zela egiazkoa. 2011n landu zuten adi-tuekin elkarlanean txosten bat non azaldu zuten, hasteko, 1.000 tonatan kalkulatzan zela Gémenoseko fabrikaren errentagarritasun maila eta itxi zutenean 2.900 ari zela ekoizten. Te kaxa 1,60-2,60 euro artean saltzen bazen, langileen

Ibere en Exil blogean ipinitako irudi handian, Gémenoseko langileak fabrika batzarturik; elkarri bizkarretik helduta dauden biek tixertetan “*Unileverrek enplegua hiltzen du*” daramate idatzirik. Enpresak 2010ean zeuzkan obreroetako batzuk hamar urte lehenago Frantziako beste muturretik eraman zituen, Normandiako Le Havretik, hango usina itxita langabeziara joatearen albertanibatzat Gémenoseko lanpostua eskainirik. Bigarren *shock* handia izan da horientzako. Argazki txikian *Elephant* infusioaren irudia pegatua: “Elephant tea Proventzan geratuko da. Solidaritatea *fralibtarrekin*. Itxierari ez”. Unileverrena den Fralibeko ugazabek argudiatu dute produkzioa merkeago ateratzen zaiela Europako beste bi fabriketan, horietako bat Polonian. CGTk erantzun du Gémenosekoa errentagarria dela eta enpresak etekinak atzerrira daramatzala, bide batez Frantzia zergak ez ordaintzeko.

kosteak 0,15 baino txikiagoak ziren.

Mundu osoan 167.000 langile enplegatzen dituen erraldoia da Unilever, hainbat markarekin merkaturatuz: *Axe, Dove, Omo, Flora, Hellmann's, Knorr, Lipton, Lux, Magnum, Rama, Rexona, Sunsilk...* Frantziako adarrak, CGTren kalkulue-tan, 2008an bertan 750 milioi euroko etekinak banatu zituen nagusien artean. Horietatik 200dik gora Suitzako zentralera bidali zituen, beti ere legeetan ondo babesturik. Horrelako mugimendu batek baimendu zion urte bakar batean Frantziako estatuari 67 milioi euro gutxiago ordaintzea zergatan.

Norena da *Eléphant* zaharra?

Fralibeko langileen apustua hasieratik izan da itxieragatik protesta egiteaz gain *B plan* bat antolatzea. Horren hari nagusiak 2011rako markaturik zeuzkaten, aholkulari enpresa batek lagundurik. Enpresa berria kooperatiba izateaz gain, ikusi zuten fabrikak etorkizuna eduki zezakeela Unileverrek makinak eta eraikinak utzi, *Elephant* marka euro bakar sinbolikoan saldu eta makinak osterabian jartzeko diru bat aurreratzekotan.

Azpiegiturak utzi eta dirua jartzeko prest azaldu zen Unilever,



baina *Elephant* marka askatzeko ez. Frantziako merkatuan daukan ize-naz gain langileek garrantzia eman-ten zioten Marseillan 1892an *The de l'Eléphant* sortutako markak Pro-ventzako eskualdearentzako daukan balio sinbolikoari. Honetan ez du amore eman erraldoiak, klase guz-tietako boikot eta ekintzak jasan arren, eta beste marka batez merka-turatu beharko dute Scop T.I koo-peratiba osatu duten beharginek.

CGT sindikatuaren Unileverreko atalak bere webean azaldu ditu Fra-libeko langile ohiek lortutako akor-dioaren xehetasunak. Lurzorua eta eraikinak administrazioaren esku geratzen dira, eta euro bakar sinbo-likoaren prezioan ekipo administra-tibo eta industrial guztiak ere. Uni-

leverrek diruz lagunduko du enpre-sa berria abiarazten eta langileen plan alternatiboa aurrera ateratzen. Sare komertziala antolatzen lagun-duko die, merkaturaz aztertzen eta marka berria sortzen.

Multinazionalak onartu du ere langileen formakuntza diruz lagun-tzea eta Gémenosen dauden maki-nak modernizatzea. Kooperatiba berria martxan jartzeko bidean bere gain joango da langileen ordezkari-en soldatak pagatzea.

Dena ondo badoa, duela hiru urte eta erdi enpresa ixtean ari ziren 182 langileetatik 76 hasiko dira koo-peratiba berrian. Te eta infusio eko-logikoen merkatuan zentratuko dira. "Ahal den neurrian inguruko ekoizleen produktuak erabili nahi

ditugu, nahiago bertako ezkien lorea Errumaniatik ekarritako baino". Tea bezalako beste lehen-gaiak urrundik ekarri behar dire-nean, Marseillako portua eta hurbi-leko kanalak lehenetsiko dituzte.

Kontua, proiektu berriaren ardu-radunek diotenez, ez da soilik *ekolo-giko* edo *bio* zertifikatua. Langileek ikusi dute nola 2001ean Unileverrek baztertu zituen betiko osagai natu-ralak, usain eta zaporeak kimikaz ordezkatzeko. "Jendeari ahaztarazi zaio gauza bakoitzaren zaporea. Orain askok bi zorrotxo ipini behar dituzte uretan zerbait dastatu ahal izateko. Lehen egiazko ezki, men-daz eta laranjaz egiten ziren infusio-ak, hemen bertan landuta".



Maiatzaren 27ko itunarekin bizi berri bati ekin diote Gémenoseko langileek. Marrazoz beteriko mer-katu batean bizirauten ikasi beharko dute infusio naturalak salduz. Lor-tuko duten? Usina ixtea erabaki zuen Unileverrek apustu egingo dizu ezetz, hamaika argudio eko-nomiko eta komertzial erakusten ditu www.fralib.fr gunean.

Multinazionalak kaleratzeko kalte-ordain moduan pagatuko diz-kien 20 milioi euroekin abiatuko dute kooperatiba berria langileek. Langileen ordezkari Olivier Leber-quierrek *Reuters* agentziari esan dio: "Ez dugu borrokatu lortzeko txeki handiagoa baizik eta berriro lanean hasteko tresna industrial. Ezin dugu esan irabazi dugula fabrika osterabiatu eta proiektua mamitu arte, baina lehen garaipen honek etorkizuna badugula sinestea ekarri digu". ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia





DANI BLANCO

Autodeterminazioa (1990-2014)

IGANDETIK aurrera ez da ezer aldatuko Euskal Herrian eta ekainaren 9an herritarrak ohi moduan ekingo dio bere egunerokoari, baina gizarte zibil abertzaleak beste urrats bat emango du bere antolaketa eta trinkotzean. Hiru mezu behintzat argi utzi gura ditu Gure Esku Dago ekimenak: bat, herri bat gara, Euskal Herria; bi, gure etorkizuna erabakitzeke eskubidea dugu; norabide horretan ezinbestekoa da gizarte ekimena indartzea, apurka, honek norabide indartsua finka dezan.

Eusko Legebiltzarrak autodeterminazioaren aldeko deklarazioa onartu zuen joan den astean: EAJ-ren eta EH Bilduren 48 boto alde; PSE, PP eta UPyDren 27 aurka. 1990ean Eusko Legebiltzarrak onartutakoaren gisakoa zen eta orduan EAJ, EA eta EEren sostenguekin atera zen (38 boto) eta PSE eta PP aurka zirela (23 boto); 13 eserleku zituen HB abstenitu egin zen eta boto bat baliogabea izan zen. Ikusten den moduan, HBkoak gehituko bagenizkio orduko baiezkoari 51 boto lirake, oraingoan baino gehiago. Noiz zen handiago autodeterminazioaren aldeko sostengua euskal gizartean, orduan ala orain?

Legebiltzarrera begira paretsu, baina eta gizarteari begira? Heldu leku asko izan dezake erantzunak, baina bat giltzarri da, orduan ETA jardun betean zebilen eta gaur egun ez, eta horrek askoz ikusgarriago egiten du mugimendu abertzalearen indarra eta proiektzioa. 1998-99ko Lizarra-Garaziko ilusio giro haren arrastoak berriz sumatu dira herrietan.

Euskal Herriak, aldiz, nola erabaki behar du? Non? Lurralde

zatiketa hor dago, 1990ean bezala, eta gainera Nafarroako Legebiltzarrak inoiz ez du halako aldarrikapenik egin eta kontrakoa bai sarri. Ordukoarekiko abantaila nagusia zera da, abertzaletasunak errealitatea hobeto interpretatzen duela eta, beraz, hobeto erantzun diezaiokeela. Orduan ezker abertzaleak Hegoalde osoak batera erabaki behar zuela defendatzen zuen, banaketa nola gaindi zitekeen argitu barik. Gaur egun, alderdi eta gizarte mugimendu abertzale guztia bat dator: Euskal Herriak, gaur gaurkoz, ezin du batera erabaki eta, edozer egiten duela ere, Nafarroak eta EAEk beren kabuz erabaki beharko dute. Ipar Euskal Herriaren egoera larriagoa da, haren izenean erabaki dezakeen instituziorik ere ez dutelako oraindik.

1998-99ko Lizarra-Garaziko ilusio giro haren arrastoak berriz sumatu dira herrietan

GAUZA asko aldatu dira 1990etik gaurdaino, besteak beste hain garrantzitsua den nazioarteko esparruan. Sobiet Batasunaren apurketarekin estatu berri ugari sortu zen Europan, horietako asko autodeterminazio eskubidean oinarrituta –Alemania hala batu zen–; Txekoslovakia banatu; Jugoslaviako gerratik ere estatu berriak sortu ziren... Hainbat independentzia uholde bizi izan da Europan azken 25 urtetan, eta orain beste bat izan liteke Eskozia eta Kataluniarekin. Biak dira prozesu desberdinak, baina une honek batez ere arrazoi batengatik:


Erresuma Batuak onartu egiten dio Eskoziari independente izan ala ez erabakitzea eta Espainiak Kataluniari ukatu. Bi kasu hauek giltzarri izango dira Euskal Herriarentzat ere.

Baina gauza gehiago ere aldatu da Euskal Herrian autodeterminazioarekiko. 1990ean abertzaletasunaren sektore zabalek –batez ere ezker abertzaleak– hura gabe Euskal Herriak eraiki ezin zela proiektatzen zuen gizartera. Gaur egun, aldiz, eskubide hori giltzarri dela ulertuta ere, alorrez alorreko eguneroko lana barik nekez aurreratu dela sustraitua dago. Azken bospasei urteetako krisiaren latzak ere ikuspegi hau indartzera lagundu du.

Horregatik da hain garrantzitsua Nafarroan oposizio indarberritua gobernu alternatiboaren lauzpabost oinarri adosten has-tea, gizarteari gobernu aldaketaren mezua argi helarazteko. Edo euskararen garapenari bultzada berri bat emateko instituzio eta herri ekimeneko indarren elkarlana areagotzea. Edo Gipuzkoa hondakinen bilketa bereiziaren bidean nabarmentzen jarraitzea, beste herrialdeak ere bide berean abiatzeko. Edo oraindik euskal instituzioen kontrolpean diren finantza tresnak hala jarrai dezaten bultzatzea. Instituzio eta hezkuntza komunitatearen lan bateratua LOMCeren eragina apaltzeko... Hori guztia ere aldatu da autodeterminazioaren ingurumarian, ohiko zume horietan tematu gabe, autodeterminazioa edo independentzia urruneko itzalak besterik ez direlako. ■



ASTE HONETAKO Zozketa



Argiako harpidedunentzat

Atxaspi Hotela



Relax gaua
(astean zehar)
bi lagunentzako

Bittiria kalea, 24
Lesaka NAFARROA

www.atxaspi.com

1

Ekainberri

Ekain berri




3 lagunentzako
bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA

www.ekainberri.com

2

Iruñeko Planetarioa



3 lagunentzako
bina sarrera

Antso Ramirez, z/g
Iruñea NAFARROA

www.planetario.org

3

Goza daiteke geihago



Euskaldun baten
hizkuntza-bidaia

Karmelo Ayesta
5 liburu

<https://sites.google.com/a/utrusque.com/utrusque-vasconiae/>

4

Erlea gure sendagile



liburua

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2416. Argia)

ATXASPI HOTELA

- Andres Odriozola Lizaso (Zarautz)

DONOSTIAKO AQUARIUMA

- Ander Epelde Ezenarro (Soraluze)
- Artez Euskara Zerbitzua (Bilbo)
- Iñaki Urbistondo Plazaola (Azpeitia)
- Iñaki Urutxurtu Fernandez (Antsoain)

EUREKA! Zientzia Museoa

- Javier Iraeta Narbaiza (Durango)
- Eva Ruiz De Galarreta Crespo (Noain, Elortzibar)

GOZA DAITEKE GEIHAGO liburua

- Joxe Anjel Arbelaitz Mitxelena (Donostia)
- Xanti Saizar Arostegi (Tolosa)
- Julen Gorostizaga Elu (Arrankudiaga)
- Imanol Irigoien Aranberri (Oiartzun)
- Jesus Miguel Zabalo Bilbao (Galdakao)

ILLIMANI liburua

- Miren Abalde Alzuart (Donostia)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • guinea@argia.com

www.argia.com/guinea

guinea

argia



EKAINAK 8

GIZA-KATEA

ELKARLANEKO JARRAIPENA



Hainbat hedabidek elkarlanean erabakitzeke eskubidearen aldeko giza katearen jarraipena egingo dugu,

Ekainaren 8an, goizean goizetik hasita, plataforma anitzetan.

naiz: berria goiena" Hamaika Bargaia Piztu ahötsa orroso

Irati sorea

hitza



INFO



Librean
Zuzenekoak

lolo/aldeko
ataria